




ATZERRIKO IMMIGRAZIOAREKIKO JARRERAK

José Luis Narvaiza, Jon Paul Laka eta María Silvestre

txostenak

ikuspegi.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA DEPARTAMENTU
GABIETAKO SALA
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES



Immigrazioaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de Inmigración



Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea



ATZERRIKO IMMIGRAZIOAREKIKO JARRERAK

José Luis Narvaiza, Jon Paul Laka eta María Silvestre



Immigrazioaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de Inmigración

Jon Paul Laka

Deustuko Unibertsitateko Ekonomi eta Enpresa Zientzietako Lizentziatua (1987) eta Doktorea (1994). Southampton-eko Unibertsitatean Social Statistics-etan Maisua (1992). Deustuko Unibertsitateko Komertzialeko Irakasle Titularra. Gestio eta Gizarte Zientzietara Estatistika Aplikatuan eta, bereziki, Aldagai Anitzeko Azterketan aditua.

José Luis Narvaiza

Zuzenbide eta Ekonomia eta Enpresa Zientzietan Lizentziatua eta Ekonomian Doktorea (1987). Deustuko Unibertsitateko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko Katedraduna. Aldagai Anitzeko Analisi Aplikatuan, Osagaien Analisisian eta Korrespondentzia Analisisian aditua.

María Silvestre Cabrera

Deustuko Unibertsitatean Zientzia Politikoan eta Soziologian lizentziatua (1990) eta Doktorea (1997). Deustuko Unibertsitateko Zientzia Politiko eta Soziologiako Fakultateko Dekanoa. Espainiako Soziologia Federakuntzako (FES) Lehendakariordea. Emakumeen kontrako Indarkerian Esku Hartzea izeneko Aditu/Masterreko zuzendaria. "Deusto Gizarteko Balioak" (DVS) ikerketa taldeko zuzendaria.

Argitaraldia:	2007ko ekaina
Ale-kopurua:	500 ale
Argitaratzailea:	Ikuspegi. Immigrazioaren Euskal Behatokia
Fotokonposizioa:	Ikuspegi. Immigrazioaren Euskal Behatokia
Inprimatzea:	ITXAROPENA, S.A. Araba kalea, 15. 20800 Zarautz (Gipuzkoa)
ISBN:	978-84-8373-972-3
Lege-gordailua:	SS-860/07

	Orr.
I. Sarrera. Jarrerren azterketa: Europar kezka	6
II. Helburuak	6
III. Metodologia	7
IV. Emaizen interpretazioa	8
1. <i>Inkestan agertzen diren immigrazioarekiko jarrerren bidez adierazten diren ezkutuko faktoreak</i>	8
2. <i>Faktoreen eta galdetegia erantzun dutenen aldagai deskriptiboen arteko harremanen azterketa</i>	10
3. <i>Ondorio-laburpena: Nor dago hautemandako bost jarrera horien atzean?</i>	18
3.1. Adinaren eta ikasketa-mailaren arteko harreman bitxia	18
3.2. Ideologia politikoaren garrantzia	19
3.3. Erlijioak eta abertzaletasunak noiz dute eragina?	19
3.4. Asimilazioa vs. kultura-aniztasuna: non dago kultura-artekotasuna?	19
4. <i>Tipologia</i>	20
4.1. Ezkutuko faktoreetatik abiatuz taldeak definitzea	22
4.2. Tipologia eta aldagai soziodemografikoen arteko harremana	24
a) Aldagai soziodemografikoetatik abiatuta lortutako definizioa	24
b) Taldeen soslai soziologikoa	31
4.3. Gutxiengoaren onarpen-maila	32
V. Ondorioak	34
Bibliografia	37
Oharrak	37
Laburpen-taula	38
Eranskinak	39

	Orr.
1. Taula. Atzerriko immigrazioarekiko jarreretan eragiten duten aldagaiak	18
2. Taula. Talde-banaketa	20
3. Taula. Talde-banaketa: Tolerantzia vs. Intolerantzia	21
4. Taula. Tipologia eta Ezkutuko Faktoreak	22
5. Taula. Tipologia eta Adina	24
6. Taula. Tipologia eta Adina (ehuneko bertikalak)	25
7. Taula. Tipologia eta Ikasketa-maila (ehuneko horizontalak)	25
8. Taula. Tipologia eta Ikasketa-maila (ehuneko bertikalak)	26
9. Taula. Tipologia eta Erlijiozkotasuna (ehuneko horizontalak)	27
10. Taula. Tipologia eta Erlijiozkotasuna (ehuneko bertikalak)	27
11. Taula. Tipologia eta Ideologia Politikoa (batezbestekoak)	28
12. Taula. Tipologia eta Boto-asmoa (ehuneko horizontalak)	29
13. Taula. Tipologia eta Boto-asmoa (ehuneko bertikalak)	29
14. Taula. Tipologia eta Abertzaletasuna (batezbestekoak)	31

	Orr.
1. Diagrama. 1. Faktoreak ("Gizarte-eskubideen bermea") Ikasketa-mailarekin duen harremana	11
2. Diagrama. 1. Faktoreak ("Gizarte-eskubideen bermea") adinarekin duen harremana	11
3. Diagrama. 1. Faktoreak ("Gizarte-eskubideen bermea") erlijiozkotasunarekin duen harremana	11
4. Diagrama. 1. Faktoreak ("Gizarte-eskubideen bermea") Abertzaletasunarekin duen harremana	11
5. Diagrama. 2. Faktoreak ("Asimilazio-baldintzen garrantzia") Ikasketa-mailarekin duen harremana	13
6. Diagrama. 2. Faktoreak ("Asimilazio-baldintzengarrantzia") Adinarekin duen harremana	13
7. Diagrama. 2. Faktoreak ("Asimilazio-baldintzen garrantzia") Erlijiozkotasunarekin duen harremana	13
8. Diagrama. 2. Faktoreak ("Asimilazio-baldintzen garrantzia") Abertzaletasunarekin duen harremana	13
9. Diagrama. 3. Faktoreak ("Etorkina erantzule ez egitea") Ikasketa-mailarekin duen harremana	14
10. Diagrama. 3. Faktoreak ("Etorkina erantzule ez egitea") Adinarekin duen harremana	14
11. Diagrama. 3. Faktoreak ("Etorkina erantzule ez egitea") Erlijiozkotasunarekin duen harremana	14
12. Diagrama. 3. Faktoreak ("Etorkina erantzule ez egitea") Abertzaletasunarekin duen harremana	14
13. Diagrama. 4. Faktoreak ("Immigrazioaren erakunde-gaitzespena") Ikasketa-mailarekin duen harremana	15
14. Diagrama. 4. Faktoreak ("Immigrazioaren erakunde-gaitzespena") Adinarekin duen harremana	15
15. Diagrama. 4. Faktoreak ("Immigrazioaren erakunde-gaitzespena") Erlijiozkotasunarekin duen harremana	16
16. Diagrama. 4. Faktoreak ("Immigrazioaren erakunde-gaitzespena") Abertzaletasunarekin duen harremana	16
17. Diagrama. 5. Faktoreak ("Kultura-aniztasunaren aldekoa") Ikasketa-mailarekin duen harremana	17
18. Diagrama. 5. Faktoreak ("Kultura-aniztasunaren aldekoa") Adinarekin duen harremana	17
19. Diagrama. 5. Faktoreak ("Kultura-aniztasunaren aldekoa") Erlijiozkotasunarekin duen harremana	17
20. Diagrama. 5. Faktoreak ("Kultura-aniztasunaren aldekoa") Abertzaletasunarekin duen harremana	17
21. Diagrama. Tipologia eta Ezkutuko Faktoreak	23
22. Diagrama. Tipologia eta Ideologia Politikoa (batezbestekoak)	28
23. Diagrama. Tipologia eta Abertzaletasuna (batezbestekoak)	31
24. Diagrama. Zer nolako garrantzia du honako pertsonaren bat ... izatea	32

I. SARRERA:

Jarrerren azterketa: Europar kezka

1997ko Eurobarometroak agerian utzi zuen etorkinekiko eta gutxiengoekiko jarrera arrazisten eta xenofoboen inguruko kezka; horren ondorioz, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Europako Behatokiak aurreko inkesta hura osatuko zuen inkesta berri bat egin zuen 2000 urtean, jarrera negatibo horiek zehaztasun eta arreta handiagoz aztertzeke asmoz. Bigarren inkesta haren emaitza nagusiak hauek izan ziren:

- 1997 eta 2000 urteen artean, estatu kideetan gehiengoaren eta gutxiengoaren bizikidetzak hobetzeke helburua duten politiken alde dauden pertsonen kopurua areagotu egin da.
- Emaitzek bilakaera negatiboa ere izan dela agerian utzi dute. Izan ere, gero eta gehiago dira langabezia, gizarte ongizatearen galeraz eta irakaskuntza-mailaren gainbeheraz arduratuta dauden pertsonak, eta aldi berean, txartze horren errua gutxiengoei egozten dietenak.
- Datuek adierazten dutenaren arabera, kultura-aniztasunaren gaitzespena aldaketa sozioekonomikoeke beldur horrekin estuki lotuta dago. (EUMC-SORA, 2001)

Europar Txostenaren ondorioek, Espainiar estatuari dagokionez, datu baikorrak eman dituzte immigrazioarekiko jarrereri dagokienean, izan ere, hau diote: "Espainiar etorkinen onarpen-maila altua ikus daiteke. Bertan jasotako erantzunek gizarte-ongizatea galtzeko beldur gutxiago agertzen dute EBko hainbat estaturekin alderatuz gero. Naziotasun, arraza edo erlijio ezberdineke pertsonak inguruan egoite gutxiago asaldatzen ditu. Gutxiengoak bertako bizitza kulturala aberasteko bide gisa ikusten dituzte eta talde horien kultura-asimilaziorik ez dute eskatzen. Gutxiengoekiko gainerako jarrerak EBko gainerako estatuetan topatu ditugunen antzekoak dira." (EUMC-SORA, 2001:10)

Txosten horren arabera, immigrazioarekiko jarrerak azaltzeko dimentsio adierazgarriak dira aitzindaritzak politikoa, langabezia, gizarte-ongizatea, hezkuntza eta gizarte harremanak. Hala ere, txostenak dioenez, "Europako hegoaldeko herrialdeetan gutxiengoekiko jarreretan eragina duten faktoreak ez dira gainerako Europar eragina dutenak. Aipatu berriak ditugun ondorioak Europako hegoaldean ere adierazgarriak direla baieztatzeke aukera emango duen kausazko erlazioen frogak nahikorik ez dago." (EUMC-SORA, 2001:11)

Euskadiko hiritarrak aztergai dituen txosten honek auzi horiek guztiak egiaztatu edo ezeztatu nahi ditu. Hori da ikerketa honen helburua, Euskadiko hiritarrek immigrazioarekiko dituzten jarrerak arreta handiz aztertzea, eta jarrera ezberdinak zein jarrerok agertzen dituzten talde ezberdinak bereitzea eta deskribatzea. Horretarako maila anitzeko azterketa teknikak aplikatu zaizkio IKUSPEGIk, Immigratioaren Euskal Behatokiak egindako inkestari.

II. HELBURUAK

Ikerlan honen helburu zehatzak hauek dira:

- Inkestan agertzen diren immigrazioarekiko jarreraren bidez adierazten diren Ezkutuko Faktoreak lortzea
- Faktore horiek eta inkesta egin duten banakoen aldagai deskriptiboek (sexua, adina, ideologia eta abar) dituzten harremanak eta loturak aztertzea.
- Ezkutuko faktore horiek agertzen dituzten banakoen tipologia eratzea, banakoengan ezkutuko faktore horiek duten garrantziaren arabera.
- Tipologia horiek deskribatzea
- Tipologiak eta banakoen aldagai deskriptiboak lotzea.

III. METODOLOGIA

3.1. Ezkutuko faktoreak

Cutxiengoetik jarrearen dimentsioak antzemateko korrelazio-matrizean oinarritutako Faktore-Analisia egin dugu; horretarako Faktore Nagusien errotaio zeihararen metodoa erabili dugu, ezkutuko faktoreen korrelazioa antzemateko aukera izateko. Analisisian erabili diren galderak immigrazioarekiko jarrerak argi adierazten dituztenak izan dira, hau da, seigarren galdera etorkinen sarrera onartzeko ala debekatzeko baldintzak aztertzen dituenak, eta zazpigarren, hamabosgarren, hamaseigarren eta hemezortzigarren galderak, zeinak immigrazioarekiko beldurra, eta immigrazioaren arazoak, abantailak zein arriskuak adierazten dituzten esaldiekiko adostasuna eta desadostasuna neurtzen baitute. Aldagai horien arteko harremanek ezkutuko faktoreak aurkitzen, identifikatzen eta neurtzen lagundu digute.¹

Ezkutuko faktoreen eta aldagai soziodemografikoen arteko harremana aztertzeke *Aldagai anitzeko Bariantza-analisia* erabili dugu, aldagai kuantitatiboak eta kualitatiboak bateratzeko aukera eman digu-na. Erabili ditugun aldagaiak hauek izan dira: sexua, adina, ikasketa-maila, abertzaletasuna, ideologia politikoa eta erlijiozkotasuna.

3.2. Klusterrak

Klusterrak edo azken taldeak zehazteko orduan, agertu zaizkigun bost faktoreetan banakoek eman dituzten balioak erabili ditugu. Horretarako bi fasetan eratu dira klusterrak:

- Batez besteko k elementuen iterazio-metodo ez hierarkikoaren bidez 150 konglomeratu txiki sortu ziren hasieran
- Aurreko 150 kluster txiki horien zentroideei aplikatutako metodo hierarkikoa (Ward) aplikatuz.

Taldeen barneko aldakortasunaren pixkanakako gehikuntza kontuan izanik, sei talde osatzea erabaki dugu; talde horiek bereizteko faktore bakoitzean talde horiek dituzten zentroideak erabiliko ditugu.

3.3. Neurketa errepikatuen eredua

Neurketa errepikatuen aldagai anitzeko eredua erabili dugu, izan ere, banako bakoitzaren erantzunetan onarpen-maila ezberdinak lortzen ditugu naziotasun bakoitzarentzat eta naziotasun horrekiko harreman maila bakoitzari dagokionez. Neurketa errepikatuen aldagai anitzeko ereduak kontuan hartzen du behaketak ez direla independenteak; eta lau harreman-mailak lau neurri ezberdin bailiran darabiltza, eta galdetegiko bederatzi naziotasunak subjektu-barneko faktoreak bailiran. Era berean, kluster bakoitzeko partaide izatea azalpen-faktore gisa erabiltzen da eredu-an. Aldagai anitzeko kontrasteak naziotasun ezberdinetako batezbestekoen aldean adierazgarritasun estatistikoa baieztatzeke aukera ematen digu, bai planteatutako lau harreman-mailetan eta bai aztertutako sei klusterretan ere.

IV. EMAITZEN INTERPRETAZIOA

1. Inkestan agertzen diren immigrazioarekiko jarreraren bidez adierazten diren ezkutuko faktoreak:

Gutxiengoekiko jarreraren dimentsioak

Immigrazioarekiko jarreraren bidez adierazten diren ezkutuko faktoreak bost dira. Horietariko hiruk immigrazioarekiko jarrera positiboak hartzen dituzte: 3. Faktoreak "etorkina erantzule ez egitea" deitu dugu, etorkinari errua kentzen baitio²; 5. Faktoreak kultura-aniztasunaren alde egiten du; eta 1. Faktoreak ez du uste gizarte-eskubideak arriskuan daudenik. Hala ere, gainerako bi faktoreek, maila ezberdinean, baina immigrazioaren kontrako jarrerak jasotzen dituzte: 2. Faktoreak immigrazioa baldintzatzearen garrantzia, eta 4. Faktoreak immigrazioaren gaitzespena.

1. Faktorea. Gizarte-eskubideen bermea

Faktore horrek immigrazioa fenomeno mehatxagarri gisa sumatzen duen pertzepzioetik askotan eratorri ohi diren beldur eta ardurak ukatzen ditu. Faktore horren funtsezko ezaugarria zera da, lortutako lan eta gizarte-eskubideak ez daudela arriskuan, hau da, immigrazioak ez ditu mugatzen, baldintzatzen edota txartzen aurretik zeuden zerbitzuak (lana, etxebizitza, osasuna, hezkuntza, segurtasuna eta identitatea). Faktore hau osatzen duten itemak hauek dira:

- Ondoko baieztapen hauekiko desadostasuna:

Immigrazioak hauengan *eragin negatiboa* dauka:

- a) Lana mantentzeko eta topatzeko aukerak.
- b) Soldatak txikiagoak dira
- c) Etxebizitza topatzea
- d) Ospitaletako itxaro-zerrendak
- e) Kalitate gutxiagoko hezkuntza
- f) Herritarren segurtasun-gabezia
- g) Identitate kulturalaren galera

2. Faktorea. Immigrazioari mugak jartzea (asimilazio-baldintzen garrantzia)

Atzerritarren sarrera baimentzeko garrantzitsutzat jotzen diren baldintzak biltzen ditu faktore horrek. Faktoreak immigrazioaren murrizketa laburbiltzen du, izan ere, zenbait betekizun ezartzen dio immigrazioari eta *onargarria* denaren definizioa ere zehazten du, azken hori kultura-asimilazioarekin eta irizpide ekonomikarekin oso loturik dagoelarik. Atzerritar baten sarrera baimentzeko edo debekatzeko unean garrantzitsuak dira:

- a) Heziketa-maila ona izatea
- b) Hemen bizi diren senideak izatea
- c) Gazteleraz hitz egiten jakitea
- d) Kristaua izatea
- e) Zuria izatea
- f) Diru nahiko edo asko izatea
- g) Gure herriaren beharretara moldatuko den lan-prestakuntza izatea
- h) Mendealdeko ohiturak izatea

- i) Gure bizimodua bereganatzeko prest egotea (item honek batezbesteko altuena lortu du: 6,44)

3. Faktorea. Etorkina erantzule ez egitea

Faktore horrek immigrazioaren pertzepzio positiboa islatzen du, izan ere, etorkinari egozten zaizkio hainbat erruren erantzukizuna ezeztatu egiten du, eta immigrazioarekin lotu ohi diren aurreiritzi eta etiketak ukatu egiten ditu (esate baterako, delitua, herritarren segurtasun gabezia, langabezia, galera ekonomikoa, gizarte gatazka eta abar). Faktore hau osatzen duten itemak hauek dira:

- Ondoko baieztapen hauekiko *desadostasuna*:

- Hona etorri den norbaitek edozein delitu egiten badu, herrialdetik kanporatu beharko litza-teke.
- Orokorrean etorkinen etorrerak kalte egiten dio hiritarren segurtasunari.
- Orokorrean, lanera eta bizitzera datozen etorkinen etorrerak kalte handiagoa egiten diete txiroei aberatsei baino.
- Orokorrean, gure artean bizitzera eta lan egitera datozen pertsonen etorrerak soldaten jaitsie-ra dakar.
- Lanera datozen atzerritarrak epealdi batez langabezian geratzen badira, kanporatuak izan beharko lukete.
- Etorkinek onura gehiegi ateratzen dute gizarte-babes sistematik.
- Etorkinak guztiz onartuak izan daitezten, haien erlijio eta kulturaren parteak baztertu behar dituzte gure legediarekin bat ez datozen neurrian.
- Herrialde batek arazoak ekidin nahi baditu, immigrazioarekin amaitu behar du.
- Ume etorkin asko dagoen eskoletan hezkuntzaren kalitateak behera egiten du.
- Gizarte batek onar ditzakeen erlijio, etnia eta arraza ezberdineko pertsona-kopuru mugatu bat existitzen da.

4. Faktorea. Immigrazioaren erakunde-gaitzespena

Faktore hau 3. faktorearen antitesia da, izan ere, immigrazioaren pertzepzio negatiboa jasotzen du. Faktore horri *erakunde-gaitzespena* izena eman diogu immigrazioaren gaitzespena adierazten duten jarreraz gain, Estatuak immigrazioari ematen dioten erakunde-erantzunak zalantzan jartzen dituzten jarrerak ere biltzen dituelako. Gainera faktore *ezkorra* da, immigrazioaren fenomenoan inolako aban-tailarik antzematen ez baitu. Faktore hau osatzen duten itemak hauek dira:

- Ondoko esaldiekiko *desadostasuna*:

- Etorkinek ekonomia hobetzeko aukera ematen dute, izan ere, bertako biztanleek nahi ez dituzten lanpostuak hartzen dituzte.
- Herrialde aberatsen betebeharra da herrialde txiroetatik datozen pertsonak hartzea.
- Gizartearentzat onuragarria gertatzen da kultura, etnia eta erlijio ezberdinetako pertsonen osatua egotea.
- Autoritateek etorkinen bizi-baldintzak hobetzeko ahalegin handiagoa egin beharko lukete.
- Etorkinek hemen betetzen ez diren lanpostuak betetzeko aukera ematen dute.
- Herrialde guztiei mesede egingo lieke pertsona guztiak herrialde batetik bestera joateko eta etortzeko askatasunak.
- Bi edo hiru belaunalditan, etorkinen ondorengoak bertako biztanleak bezalakoak izango dira.
- Etorkinen erlijio-ohiturek arriskuan jartzen dute gure bizimodua.

5. Faktorea. Kultura-aniztasunaren aldekoa

4. faktorea ezkorra dela esan badugu ere, azken faktore hau *baikorra* da. Horretan, argi eta garbi egiten da kultura-aniztasunetik abiatzen den integrazioaren alde, betiere, kultura-, hizkuntza-, identitate- eta erlijio-ezberdintasunak errespetatuz. Faktore hau osatzen duten itemak hauek dira:

- Ondoko baieztapen hauekiko *desadostasuna*:
 - Gizartearentzat hobe da pertsona guztiek tradizio eta ohitura berdinak izatea.
 - Kultura-talde ezberdinek haien seme-alabak eskola bereizietan hezteko aukera izan behar-ko lukete, hala nahi balute.
 - Gizartean guztiz onartuak izan daitezen, etorkinek haien kultura eta ohiturak alde batera utzi behar dituzte.
 - Gizartearentzat komenigarria da biztanle guztiek gutxienez hizkuntza komun bat izatea.

2. Faktoreen eta galdetegia erantzun dutenen aldagai deskriptiboen arteko harremanen azterketa

Immigrazioarekiko jarrearen azalpena: Aldagai soziodemografikoen eragina

Aurreko atalean antzeman eta identifikatu diren azpiko faktoreak banakoengan neurtu daitezke. Jakina, gizabanako batek faktore batean duen pisua faktore horrekin lotura handiena duten aldagaietan duen pisuaren arabera izango da. Horrela, bost aldagai berri sortuko ditugu eta aipatutako faktoreak izango dira aldagai berri horiek. Gainera, gizabanakoen gainerako ezaugarriekin jar ditzakegu harremanetan, immigrazioarekiko funtsezko bost jarrera horiek adinaren, ikasketa-mailaren, ideologiaren edo erlijiozkotasunaren menpe ote dauden ikusteko.

Horretarako erabili dugun teknika Aldagai anitzeko Bariantza-analisia izan da, aldagai kuantitatiboak eta kualitatiboak bateratzeko aukera eman diguna. Erabili ditugun aldagaiak hauek izan dira:

Sexua: Hasiera batean ikerketa ereduari sartu bazen ere, gero alde batera utzi egin genuen faktoreengan ez baitzuen eragin adierazgaririk, ez bakarka hartuta, ezta beste aldagaiekin batera ere. Generoak ez du inolako ezberdintasunik sortzen immigrazioarekiko jarreretan, ez biztanleria osoaren gain, ezta adinaren arabera, ikasketa-mailaren arabera eta abarren arabera egin daitezkeen azpitaldetan ere.

Ikasketa-maila: Galdetegiko 34. galderari emandako erantzunetatik abiatuta, birkodetze bat egin dugu eta antzeko modalitateak talde berean sartu ditugu (erantzun gutxiko modalitateak ager daitezen ekiditeko). Horren ondorioz dauzkagun modalitateak hauek dira: *Lehen mailako ikasketak baino gutxiago*; *Lehen Mailako Ikasketak*; *Bigarren Mailako Ikasketak*; *Batzilergoa eta LH*; *Unibertsitate-ikasketak*.³

Adina: betetako urteak erabili beharrean, datu horiek birkodifikatu egin ditugu eskala bat sortuz. Eskala horretako tarteak ondokoak dira: *18-29 urte*; *30-44 urte*; *45-64 urte*; *64 urte baino gehiago*.

Erljiozkotasuna: 43a galdera erabili dugu honetarako (Erljioari dagokionez, nola definituko zenuke zure burua?), betiere, 43b galderarekin nolabait zehaztuz, azken horrek haien buruak katolikotzat jotzen dituztenen edo beste zenbaiten erlijio-ohiturei buruz galdetzen du. Ondoren, "Beste batzuk" aukera baztertu egin da, oso erantzun gutxi biltzen zituelako eta analisia desitxuratzen zuelako. Horrela, aukeran dauden erantzunak hauek dira: *Katoliko Elizkoa*; *Katoliko Ez Elizkoa*; *Interesik gabea*; *Agnostikoa*; *Ateoa*.⁴

Abertzaletasuna: 40. galderak eskaintzen duen eskalarekin froga egin bada ere, eskalaren mutur batean lortu diren erantzunen urritasunak, gai horren inguruko beste galdera bat erabiltzea gomendagarriagoa dela pentsarazi digu. Horrela, 41. galdera erabili dugu, horretan honako aukera hauek ditu galdetegiari erantzun behar dion banakoak: *Espainola bakarrik sentitzen naiz; Espainola euskalduna baino gehiago sentitzen naiz; Neurri berean sentitzen naiz espainol eta euskaldun; Euskalduna espainola baino gehiago sentitzen naiz; Euskalduna bakarrik sentitzen naiz.*⁵


Ideologia politikoa: 39. galdera erabili dugu honetarako, horretan galdetegiari erantzun diotenek 1-etik 10-erako eskala batean kokatu behar dute euren burua, 1 = *ezker-muturra* eta 10 = *eskuin-muturra* izanik. Aldagai hau aldagai kuantitatibo gisa erabili da analisisian, hortaz beste guztiek konstante dirautenean eskalako unitate bat areagotzen denean batezbestekoarengan duen eragina suma daiteke.⁶

Bost analisi horien emaitzak Eranskinean ikus daitezke. Hemen, azpitalde bakoitzean faktore bakoitzaren batezbestekoen konfiantza-tartearen zenbatespenekin egin ditugun Diagramak baliatuz komentatuko ditugun lortutako emaitzak⁷.


1. Faktorea. Gizarte-eskubideen bermea

Jarraian agertzen diren 4 irudiek 1. faktoreak ereduari sartu ditugun ezaugarri kualitatiboekin dituen harremanak ikusteko aukera emango digute.


1. Diagrama. 1. Faktoreak ("Gizarte-eskubideen bermea") Ikasketak-mailarekin duen harremana




2. Diagrama. 1. Faktoreak ("Gizarte-eskubideen bermea") adinarekin duen harremana



3. Diagrama. 1. Faktoreak ("Gizarte-eskubideen bermea") erlijiozkotasunarekin duen harremana



4. Diagrama. 1. Faktoreak ("Gizarte-eskubideen bermea") Abertzaletasunarekin duen harremana



Ikusi ahal izan dugun bezala, faktore horrek neurtzen duena zenbait usterekiko *desadostasuna* da; immigrazioak soldatetan edo lanpostuetan, edota etxebizitza, itxaro-zerrendetan, hezkuntzan eta antzeko zerbitzuetan duen eraginaren beldur izan behar dugunaren ustearekiko desadostasuna alegia. Horiekiko desadostasunak, gizarte-eskubideak bermatuta daudelako konfiantza badagoela esan nahi du. Faktoreak desadostasun horrek batezbesteko orokorrarekiko aldeak neurtzen ditu benetan; horregatik, balioak positiboak eta negatiboak dira. Faktore horren balio negatiboek ez dute esan nahi banakoak beldur horiekin ados daudenik, bai aldiz, batezbestekoak baino desadostasun txikiagoa agertzen duela, eta balio altuagoak dituen banako batek baino desadostasun txikiagoa duela.

Faktore horrek harreman adierazgarria du ikasketa-mailarekin, adinarekin, euskal abertzaletasunarekin eta ideologia politikoarekin. *Ikasketa-maila* zenbat eta altuagoa izan, orduan eta handiagoa da banakoak sentitzen duen bermea; zenbat eta *adin* gehiago izan, handiagoa da sentitzen den bermea; eta gauza bera gertatzen da *abertzaletasunarekin*. Hiru kasu horietan, hiru atributu horien modalitateen batezbestekoek gora egiten dute gutxika, eskala guztiz ordenatua sortuz. Interes berezia sortzen du adinarekiko harremanak, izan ere, adinak eta ikasketa-mailak alderantzizko harremana dute. Horren ondorioz, pentsa liteke, berme gutxien dagoela pentsatzen dutenak ikasketa-maila baxuenekoak izanik, orduan gauza bera gertatu beharko litzatekeela adin altuena dutenekin. Baina ez da hala gertatzen: gazteenek diote immigrazioaren lehiari beldurrik handiena, eta gizarte-eskubideen bermeei dagokierenez, maila baxuenak ematen dituztenak dira. Horren arrazoa gure ereduan daukagu, izan ere, hainbat aldagai darabilgu, eta beraz, aldagai bakoitzaren eragina neurtzean gainerako aldagaiak konstanteak direla ematen dugu. Horregatik dauka adinak eragin positiboa, betiere, ikasketa-maila konstantea den artean; hau da, *ikasketa-maila bakoitzean, gazteenek maila baxuagoan sentitzen dituzte haien gizarte-eskubideak bermatuta (ikasketa maila horretako nagusienekin alderatuta)*.

Aldiz, *erlijiozkotasunak* ez ditu ezberdintasun adierazgarriak eragiten, taldeen aldakortasuna handiegia da batezbestekoen arteko ezberdintasunak adierazgarriak gerta daitezen.

Ezker-eskuin ideologia-eskalaren eragina aldagai kuantitatibo gisa sartu zen azterketan. Beraz, aztertu nahi dena zera da: eskala horretan bi banakoren arteko aldeak ezberdintasun adierazgarriak eragiten duen sentitzen den berme-mailan eta zer nolako eragina litzatekeen hori. Eranskinean dugu parametroen zenbatespenen taula, eta bertan ikus dezakegu eragin hori oso adierazgarria eta negatiboa dela (-0,079). Beraz, eskalaren izaera kontuan izanik, zenbat eta eskuinerago kokatu (ideologia politikoari dagokionez), orduan eta berme gutxiago sentitzen da, hots, gizarte-eskubideak mehatxatuagoak sumatzen dira.


1. *Faktorearen soslai soziologikoa*. Horrekin guztiarekin zera ondoriozta dezakegu: banakoek immigrazioak soldatetan, lan aukeretan edo zerbitzuetan kalterik egingo ez dietelako berme gehiago sentituko dute, haien ikasketa-maila altuagoa den neurrian, adin gehiago duten neurrian, euskal abertzaletasunerako joera nabariagoa duten neurrian, eta eskuin-muturretik urrunago kokatzen diren neurrian.

Beraz, immigrazioak aurretik lortutako gizarte-bermeak arriskuan jartzen ez dituela uste dutenen soslai soziologikoa ondokoa da: pertsona heldua, ikasketak dituen, ideologia politikoan ezkerrean kokatzen dena eta euskal abertzalea. Jarrera horretan eragin handiena duten aldagaiak ikasketa-maila eta adina dira.


2. Faktorea. Asimilazio-baldintzen garrantzia

Jarraian agertzen diren 4 irudiek 2. faktoreak ereduan sartu ditugun ezaugarri kualitatiboekin dituen harremanak ikusteko aukera emango digute.


5. Diagrama. 2. Faktoreak ("Asimilazio-baldintzen garrantzia") Ikasketa-mailarekin duen harremana




6. Diagrama. 2. Faktoreak ("Asimilazio-baldintzen garrantzia") Adinarekin duen harremana



7. Diagrama. 2. Faktoreak ("Asimilazio-baldintzen garrantzia") Erlijiozkotasunarekin duen harremana



8. Diagrama. 2. Faktoreak ("Asimilazio-baldintzen garrantzia") Abertzaletasunarekin duen harremana



2. Faktoreak pertsona bati immigratzeko aukera eman beharko litzaiokeen erabakitze garrantzitsutzat jotzen diren hainbat alderdi edo baldintza biltzen ditu. Aldagai berri horrek zera neurtu nahi du: galdetegia erantzun duen banakoak gure komunitatean onartua izan nahi duen etorkinak baldintza batzuk betetzea eska dakioken edota mugak jarri behar zaizkion pentsatzen ote duen.

PLEhenengo faktorea aztertzean esan dugun bezala, faktoreek batezbesteko posizioarekiko alde gisa neurtzen dute jarrera hori; eta orain aztertu nahi duguna ondorengoa da, zeren menpe dago banako batek batezbestekoak baino muga gehiago ala gutxiago eskatzea. Irudietan ikus daiteke adinarekin, erlijiozkotasunarekin, eta euskal abertzaletasunarekin harreman adierazgarria dagoela; aldez, ikasketa-mailak ez du alde adierazgarririk sortzen batezbestekoekiko.

Zenbat eta urte gehiago izan, orduan eta garrantzi handiagoa emango zaio immigrazioa asimilatze baldintza horiei (batez ere, 45 urtetik gora), izan ere, lehen bi adin tarteetan aldeak oso txikiak dira.

Erlijiozkotasunak du eraginik handiena, alderantzizko eragina gainera. Katolikoek (elizkoiek eta elizkoia ez direnek) ez daukate barnean alde adierazgarririk, eta immigrazioari jarri beharreko baldintza horiei garrantzi handiena ematen dietenak dira. Hortik aurrera, garrantziaren batezbestekoak behera egiten du "Interesik gabea", "Agnostikoa" eta "Ateoa" erantzunak ematen dituztenetara hurbildu ahala.

Euskal abertzaletasunari dagokionez, alderik handiena espainolak bakarrik sentitzen diren horien eta euskaldunak (neurri ezberdinetan) sentitzen diren horien artean ageri da. Espainolak sentitzen direnek adierazgarria den garrantzi handiagoa ematen diete baldintza horiei.


Ezker-eskuin eskalak eragin adierazgarria eta positiboa du (0,078). Eskuineko posizioetara hurbiltzen garen heinean baldintza hauei ematen zaien garrantzia handiagoa da.

2. *Faktorearen soslai soziologikoa*. Etorkinaren asimilazioa bermatuko duten baldintzak betetzea garrantzitsuagotzat jotzen dutenek, eta beraz, etorkina onartu aurretik baldintzok bete behar dituztela uste dutenek, ondoko ezaugarri hauek dituzte: urte gehiago dute, erlijiozkotasun gehiago dute, espainolak sentitzeko joera handiagoa dute eta eskuin ideologikotik hurbilago daude, betiere, ikasketa-maila dena delakoa. Erlijiozkotasuna eta ideologia politikoa aldagai adierazgarrienak dira asimilazio-jarrerak azaltzeko orduan.


3. Faktorea. Etorkina erantzule ez egitea

Jarraian agertzen diren 4 irudiek 3. faktorea ereduan sartu ditugun ezaugarri kualitatiboekin dituen harremanak ikusteko aukera emango digute.


9. Diagrama. 3. Faktorea ("Etorkina erantzule ez egitea") Ikasketa-mailarekin duen harremana




10. Diagrama. 3. Faktorea ("Etorkina erantzule ez egitea") Adinarekin duen harremana



11. Diagrama. 3. Faktorea ("Etorkina erantzule ez egitea") Erlijiozkotasunarekin duen harremana



12. Diagrama. 3. Faktorea ("Etorkina erantzule ez egitea") Abertzaletasunarekin duen harremana



3. Faktoreak ondoko ideiekiko desadostasuna adierazten du: etorkinen etorrerak segurtasun-eza, soldata baxuagoak eta abar eragiten ditu, eta deliturik eginez gero edota langabezia geratuz gero kanporatuak izan beharko lukete. "Desadostasuna" neurtzean, normalean etorkinari egozten zaizkion arazo multzo baten erantzukizuna kentzeko modu bat neurtzen ari gara nolabait.

Zeren arabera kentzen diete banakoek erantzukizuna maila handiagoan edo txikiagoan etorkinei? Aurreko Irudien arabera, ikasketa-mailarekin harreman adierazgarria dago, bai eta erlijiozkotasunarekin ere; hala ere, adinak eta euskal abertzaletasunak ez dute alde adierazgarriak eragiten.

Ikasketa-maila altuagoa denean batezbestekoak ere gora egiten du, baina jauzi argia nabari da bi maila altuenetara (Batxilergoa eta LH, eta Unibertsitate-ikasketak) igarotzen garenean. Azken horiek dute etorkinen aldeko jarrerarik argiena.

Erljiozkotasunari dagokionez, katolikoek (elizkoiek eta elizkoiak ez direnek) agertzen dute etorkinen aldeko posizio baxuena, hau da, etorkinei erantzukizuna kentzeko joera gutxien duten taldea dira. Gainerako taldeetan, erlijio sentipenak behera egin ahala, batezbestekoak gora egiten du nabarmen eta etengabe. En cuanto a la escala izquierda/derecha, el efecto es muy significativo y negativo (-0,099), lo que implica, teniendo en cuenta la escala, que a medida que nos movemos por ella hacia posiciones de derechas, el promedio del factor va disminuyendo, es decir, va exculpando menos a los inmigrantes.


Ezker-eskuin eskalari dagokionez, eragin oso adierazgarria eta negatiboa du (-0,099). Hortaz, eskuineko posizioetara hurbildu ahala faktorearen batezbestekoak behera egiten du, hau da, etorkinei erantzukizuna kentzeko joera gutxiago suma daiteke.

3. *Faktorearen soslai soziologikoa.* Etorkinei kalte horien guztien erantzule ez egiteko joera handituko da, ikasketa-maila altuagoa den heinean, erlijioari garrantzi gutxiago ematen zaion neurrian eta ezker ideologikora hurbildu ahala. Adina eta abertzaletasuna ez dira adierazgarriak.


4. Faktorea. Immigrazioaren erakunde-gaitzespena

Jarraian agertzen diren 4 irudiek 4. faktoreak ereduari sartu ditugun ezaugarri kualitatiboekin dituen harremanak ikusteko aukera emango digute.


13. Diagrama. 4. Faktoreak ("Immigrazioaren erakunde-gaitzespena") Ikasketa-mailarekin duen harremana




14. Diagrama. 4. Faktoreak ("Immigrazioaren erakunde-gaitzespena") Adinarekin duen harremana



15. Diagrama. 4. Faktoreak ("Immigrazioaren erakunde-gaitzespena") Erlijiozkotasunarekin duen harremana



16. Diagrama. 4. Faktoreak ("Immigrazioaren erakunde-gaitzespena") Abertzaletasunarekin duen harremana



Aurretik azaldu dugun bezala, faktore horrek immigrazioaren onurak azaltzen dituzten hainbat esaldirekiko desadostasuna azaltzen du; bai etorkinei beraiei ekartzen dizkieten onurak eta, batez ere, etorkin horiek hartzen dituzten gizarte eta herrialdeei ekartzen dizkietenak. Eskalak esaldi horiekiko desadostasuna neurtzen duenez, Faktoreak onura horiek (erakunde mailakoak batez ere) benetakoa direla ukatzea neurtzen du.

Banako bat batezbesteko orokorraren gainetik edo azpitik egoteko eragina duten aldagaiak agertzen dizkigute Irudiek.

Eragin adierazgarria duten aldagaiak ikasketa-maila, adina, euskal abertzaletasuna eta ideologia dira; erlijiozkotasunak ez ditu batezbestekoetan alde adierazgarriak eragiten.

Ikasketa-maila zenbat eta altuagoa izan, orduan eta txikiagoa da gaitzespena; eta azpimarragarria da eskalaren bi muturren arteko aldea. Adina handitu ahala ere, gaitzespenaren batezbestekoak behera egiten du; gazteenen kasuan izan ezik, horien gaitzespen-maila ondorengo taldearena baino zertxobait baxuagoa baita. Berriro ere, 1. Faktorean gertatu bezala, bat egiten dute Adinaren eta Ikasketa-mailaren eraginek; deigarria gertatzen da hori, aldagai horien arteko harremana alderantzizkoa baita. Oraingoan ere, hori azaltzeko kontuan izan behar dugu aldagai baten eragina neurtzen dugula besteak konstante dirauten artean.

Euskal abertzaletasuna batezbestekoen arteko alde adierazgarriena sortzen duen aldagaia da; espainolak soilik sentitzen direnen eta gainerakoen arteko aldearen ondorioz gertatzen da hori. Talde horrek gainerako taldeek baino gaitzespen maila askoz handiagoa du; gainerako taldeen artean ez da alde adierazgarririk sumatzen.


Ezker-eskuin eskalak eragin adierazgarria eta positiboa du (0,078). Eskuineko posizioetara hurbiltzen garen heinean are eta gehiago ukatzen da immigrazioak onurak ekar ditzakeenik.

4. *Faktorearen soslai soziologikoa.* Immigrazioak onurak dakartzala, erakunde-onurak batez ere, ukatzea areagotu egiten da Ikasketa-maila baxuagoa den neurrian, banakoak gazteagoak diren neurrian, oso altua da espainolak bakarrik sentitzen direnen artean eta banakoa eskuin ideologikora hurbildu ahala areagotu egiten da.


5. Faktorea. Kultura-aniztasunaren aldekoa

Jarraian agertzen diren 4 irudiek 5. faktoreak ereduari sartu ditugun ezaugarri kualitatiboekin dituen harremanak ikusteko aukera emango digute.


17. Diagrama. 5. Faktoreak ("Kultura-aniztasunaren aldekoa") Ikasketa-mailarekin duen harremana




18. Diagrama. 5. Faktoreak ("Kultura-aniztasunaren aldekoa") Adinarekin duen harremana



19. Diagrama. 5. Faktoreak ("Kultura-aniztasunaren aldekoa") Erlijiozkotasunarekin duen harremana



20. Diagrama. 5. Faktoreak ("Kultura-aniztasunaren aldekoa") Abertzaletasunarekin duen harremana



Faktore horrek kultura-uniformetasunaren alde egiten duten (tradizio bera eta hizkuntza bera izatea, norberaren kultura eta ohiturak alde batera uztea...) esaldiekiko desadostasuna neurtzen du. Faktore horren edukia errazago azalduko da kontrakoa neurtzen duela pentsatzen badugu, hau da, kultura-aniztasunaren aldeko jarrera neurtzen duela pentsatzen badugu.

Ikasketa-mailak, erlijiozkotasunak, euskal abertzaletasunak eta ideologiak azaltzen dute zergatik banako batek faktore horren batezbestekoak baino adostasun gehiago edo gutxiago agertzen duen kultura-aniztasunarekiko; adinak aldiz, ez du alde adierazgarririk sortzen batezbestekoetan.

Ikasketa-mailak batezbesteko hazkorak sortzen ditu argiro, beraz, ikasketa-mailan gora egin ahala kultura-aniztasunaren onarpenak gora egiten du modu adierazgarrian.

Erlijioztasunak ez du horren eskala argia sortzen. Erlijiozkotasunak behera egin ahala kultura-aniztasunaren onarpenak gora egiten badu ere (agnostikoetara heltzen garen arte); hurrengo mailan, ateo-en mailan beherakada adierazgarria gertatzen da. Ateoek, kultura-aniztasuna katoliko elizkoiek baino

maila baxuagoan onartzen dute. Datu hori azaltzeko hipotesi gisa aipa daiteke, erlijio sinesmen eta praktiken errespetu eta aintzatespen gisa uler daitekeela kultura-aniztasuna, eta agian ateoia den norbaitek ez du horrekin bat egiten.

Kultura-aniztasunaren onarpenak gora egiten du euskal abertzaletasunarekin, batez ere, espainolak gehien sentitzen direnetatik euskaldunak sentitzen direnenetara goazenean.

Ezker-eskuin eskalak eragin adierazgarria (aurreko faktoreetan bezain indartsua ez bada ere) eta negatiboa du (-0,040). Eskuineko posizioetara hurbiltzen garen heinean kultura-aniztasunaren onarpenak behera egiten du.

5. *Faktorearen soslai soziologikoa*. Esan genezake banakoak kultura-aniztasunaren alde modu indartsuagoan egiten dutela Ikasketak-mailak gora egin ahala, erlijiozkotasunak behera egin ahala (ateoen kasua salbuespena delarik, kultura-aniztasunaren kontzeptutik abiatuta azaldu dugun bezala), euskal abertzaletasuna sendoagoa den neurrian eta ezker ideologikora hurbiltzen garen heinean.

3. Ondorio-laburpena: Nor dago hautemandako bost jarrera horien atzean?

Immigrazioarekiko jarrerak islatzen dituzten faktoreak ezarri izatetik, eta horiek aldagai soziodemografikoekin dituzten harremanetatik ondoriozta daitezkeen ekarpen nagusiak laburbildu ditugu 1. Taulan. Aldagaiak faktoreetan duten eragina modu errazean agerian gera daitezten, adierazgarritasun handiagoak azpimarratu ditugu, horren adierazgarriak ez diren aldean. Azken zutabearen faktore bakoitzaren *soslai soziologikoa* definitu dugu hitz gutxitan, hau da, immigrazioarekiko jarrera jakinak azaltzeko nabarmenenak diren bereizgarriak -hala ere, gehiegizko sinplifikazioa izanik, ezinda gainerako azalpenetik bereizita ulertu-.

1. Taula. Atzeriko immigrazioarekiko jarreretan eragiten duten aldagaiak

Immigrazioarekiko jarrerak	Eragin HANDIENA duten aldagaiak	Eragin TXIKIENA duten aldagaiak	Eraginik EZ duten aldagaiak	Soslaia
Gizarte-eskubideen bermea	Adina Ikasketak Ideologia	Abertzaletasuna	Generoa Erlijiozkotasuna	<i>Ikasketadun pertsona "heldua"</i>
Asimilazioa	Erlijiozkotasuna Ideologia	Adina Abertzaletasuna	Generoa Ikasketak	<i>Eskuineko pertsona katolikoa</i>
Etorkina erantzule ez egitea	Ikasketak Ideologia Erlijiozkotasuna		Generoa Adina Abertzaletasuna	<i>Ikasketadun pertsona, ezkerrekoa eta sinesgabea</i>
Erakunde-gaitzespena	Abertzaletasuna Ideologia	Adina Ikasketak	Generoa Erlijiozkotasuna	<i>Eskuineko abertzale espainola</i>
Kultura-aniztasuna	Ikasketak Ideologia	Abertzaletasuna Erlijiozkotasuna	Generoa Adina	<i>Ikasketadun ezkerreko pertsona</i>

3.1. Adinaren eta ikasketak-mailaren arteko harreman bitxia

Esan bezala, gainerako aldagaiak konstante mantenduz aldagai jakin baten eragina neurtzen duen eredua erabili dugu; eta horrekin sumatu ahal izan dugu, orokorrean batera doazen bi aldagai, adina

eta ikasketa maila (izan ere, gaur egungo biztanleriaren banaketan zenbat eta ikasketa maila altuene-tan gazteen proportzioa handiagoa da), alderantzizko harremana dutela 1. eta 4. faktoreetan batik bat.

1. Faktoreak (*Gizarte-eskubideen bermea*) immigrazioarekiko *jarrera positiboak* hartzen ditu. Jarrera hauek ikasketa-maila altuagoa dutenengan nabariagoak dira; baina ikasketa maila bakoitzean zaharrenek agertzen dute konfiantza gehiago gizarte-eskubideak, immigrazioa dela tarteko, arriskuan ez daudenaren ideiarekin, eta ideia hori zalantzan jartzeko joera handiagoa dute adin-taldeko gaztee-nek.

Bestalde, 4. faktorean, *Erakunde-gaitzespena*-ri buruzkoan, immigrazioarekiko *jarrera negatiboak* elkartzen dira. Kasu horretan, ikasketa maila baxuagoak errefusa handiagoa dakarren arren, adin talde-etan gora egiteak ez dakar nahitaez errefusa areagotzea, izan ere, ikasketa-maila konstante mantentzen denean gazteenek zaharrenek baino gaitzespen handiagoa adierazten dute.

Laburbilduz, ikasketa-maila aldagai garrantzitsua da immigrazioarekiko jarrerak aztertzen ditugu-nean, izan ere, orokorrean eta nagusiki, hezkuntza eta ikasketa-mailak altuagoak diren neurrian jarre-ra xenofobo eta arrazistak murriztu egiten dira.

Hala ere, gazte izateak, berez, ez ditu jarrera toleranteagoak azaltzen; aldiz, kontrakoa esan gene-zake, gainerako aldagaiak konstante mantenduz, gazteek helduagoek baino immigrazioaren kontrako jarrera nabariagoa baitute.

3.2. Ideologia politikoaren garrantzia

Immigrazioarekiko jarrerak azaltzeko aldagai adierazgarriena banakoek euren buruak ezker-eskuin eskala ideologikoan kokatzen dituen aldagaia da, izan ere, aztertutako faktore guztietan adierazgarrita-sun estatistikoa agertzen du. Eragin hori argia da: Immigrazioarekiko jarrerak negatiboagoak dira con-tinuum horren eskuineko muturrera hurbiltzen garen neurrian. Jarrera positiboak aldiz, ideologia poli-tikoa neurtzen duen continuumaren ezker aldean biltzen dira.

3.3. Erlijioak eta abertzaletasunak noiz dute eragina?

Erlijiozkotasunaren eragina adierazgarria den kasuetan, zera ikus daiteke: katolikoek (elizkoiak eta ez-elizkoiak izanda ere) etorkinaren integrazioarako asimilazioaren aldeko eredia nagusitzeko joera nabariagoa dutela (2. Faktorea).

Erlijiozkotasuna 4. faktorean ere bada adierazgarria. Kasu horretan, erlijio sinesmenik ez dutela dio-ten horiek (agnostikoek eta ateoek) immigrazioak gizarte hartzailerean eragiten omen dituen kalteen erantzukizuna etorkinei ez egozteko joera handiagoa dute.

Bestalde, abertzaletasuna, eta gure kasuan, espainiar abertzaletasuna adierazgarria da immigra-zioaren erakunde-gaitzespena azaltzeko. Aitzitik, euskal abertzaletasunak -zentzu zabalean ulertuta, neurri berean espainol eta euskaldun sentitzen direnak, euskaldunak espainolak baino gehiago sentitzen direnak eta euskaldunak bakarrik sentitzen direnak hartzen baititu barnean- immigrazioareki-ko jarrera toleranteagoak sortzen dituen aldagaia da.

3.4. Asimilazioa vs. Kultura-aniztasuna: non dago kultura-artekotasuna?

Asimilazioaren aldeko integrazio-ereduari dagozkion jarrerak (2. Faktorea) eta kultura-aniztasuna ardatz duten integrazio-ereduari dagozkion jarrerak (5. Faktorea) topatu ditugu. Baina, non daude *kul-*

tura-artekotasuna gunetzat duen integrazio-ereduari dagozkion jarrerak? Baliteke horrelako jarrerak egotea eta ereduak jaso ez izatea, galdetegiak ez baitu horretarako aukerarik eman. Auzi hori etorkizunean egingo diren prospekzioetan kontuan hartu beharko litzateke.

Definizioen sinplifikazioa eginez, aipatutako eredu horiek honela deskriba genitzake:

- *Asimilazioaren aldeko ereduak*: Etorkinek alde batera utzi behar dute haien identitate kulturala eta hartzen dituen gizartearen kultur balioak eta jokabide arauak bereganatu behar dituzte.
- *Kultura-aniztasunaren ereduak*: Etorkinek haien kultura-idiosinkrasia mantentzeko eta hala egin beharko lukete. Horren oinarrian, gainerako adierazpen kulturekiko errespetua eta berezko kultura adierazteko eskubidea daude.
- *Kultura-artekotasunaren ereduak*: Etorkinek haien kultura mantentzeko eta hala egin beharko lukete (nahi izanez gero), baina gainerako kulturen *artean*. Hortaz, identitate bati eusteak ez du esan nahi isolatu behar denik edota besteekin *kutsatu behar* ez denik: *nahasketa* aukera bat da, eta horrek ez dakar identitatearen desagertzea.

Azkenik, Europar Txostenak Espainiako kasuari buruz lortzen duen ondorioa aipatuko dugu, gure ondorioak osatuko dituen alderaketa bat ahalbidetzeko asmoz: "Espainian etorkinen onarpen-maila altua ikus daiteke. Bertan jasotako erantzunak gizarte-ongizatea galtzeko beldur gutxiago agertzen dute EBko hainbat estaturekin alderatuz gero. Naziotasun, arraza edo erlijio ezberdineko pertsonak inguruan egoteak gutxiago asaldatzen ditu. Gutxiengoak bertako bizitza kulturala aberasteko bide gisa ikusten dituzte eta talde horien kultura-asimilaziorik ez dute eskatzen. Gutxiengoekiko gainerako jarrerak EBko gainerako estatuetan topatu ditugun antzekoak dira." (EUMC-SORA, 2001:10)

Gure kasuan, Euskadiri dagokion ikerketa honek adierazten duenaren arabera, erantzunak gizarte-eskubideak izendatu ditugun horien galeraren beldurra maila baxuagoan islatu badute ere, kultura-asimilazioaren exigentzia egon badago, gehiengoari zabaltzerik ez badago ere.

4. Tipologia

Jarraian, txosten honen 3., 4. eta 5. helburuak betetzen saiatuko gara; hortaz, jadanik deskribatu ditugun ezkutuko faktore horietatik abiatuta tipologiak eratu eta definituko ditugu.

Gogora dezagun:

- 3. Helburua. Ezkutuko faktore horiek agertzen dituzten banakoen tipologia eratzea, bana-koengan ezkutuko faktore horiek duten garrantziaren arabera.
- 4. Helburua. Tipologia horiek deskribatzea.
- 5. Helburua. Tipologiak eta banakoen aldagai deskriptiboak lotzea.

Lortu dugun talde-banaketa, ondoko hau da:

2. Taula. Talde-banaketa

	Maiztasuna	Ehunekoak
Intoleranteak	122	6,8
Intolerante epelak	271	15,2
Politikoki zuzenak diren intoleranteak	173	9,7
Asimilazioaren aldekoak	352	19,7
Kultura-aniztasunaren aldeko tolerantak	475	26,6
Eredurik gabeko tolerante gogotsuak	394	22,0
Guztira	1.787	100

Taldeak definitzean *tolerante/intolerante* terminoei eutsi diegu Europar Txostenarekin (EUMC-SORA, 2001) konparaketak egiteko aukera nolabait edukitzeko, izan ere, txosten horrek kontzeptu horiek darabiltza taldeak definitzean⁸. Hala ere, gure kasuan, sei talde sortzen zaigu (lau sortu beharrean) eta horrek konplexutasun handiagoa dakar; baina, halaber, tipologia hobeto zehazten lagunduko digu, izan ere, Europako hegoaldeko herrialdeetan agertzen diren jarrerak azaltzerakoan delako txostenak sorrarazten zuen hainbat zalantzari erantzuna ematen dio⁹.

Deskribapenak aurkeztu aurretik, sei talde horiek bi kategoria nagusitan sinplifikatzen saiatuko gara: *Toleranteak vs. Intoleranteak*.

3. Taula. Talde-banaketa: Tolerantzia vs. Intolerantzia

	Maiztasuna	Ehunekoak
Intoleranteak	122	6,8
Intolerante epelak	271	15,2
Politikoki zuzenak diren intoleranteak	173	9,7
Intoleranteak		31,7
Asimilazioaren aldekoak	352	19,7
Asimilazioaren aldekoak ("Pragmatismo mesfidatia")		19,7
Kultura-aniztasunaren aldeko tolerantak	475	26,6
Eredurik gabeko tolerante gogotsuak	394	22,0
Toleranteak		48,6
Guztira	1.787	100

Taularen emaitzetara lehenengoz hurbiltzen garenean *biztanleria tolerantea* bi talde nagusienetan kokatzen dela ikus dezakegu. Hala ere, gainerako taldeak txikiagoak badira ere, immigrazioarekiko jarrera uzkurragoak agertzen dituzte, geroago ikusi ahal izango dugun bezala.

Horrela, *asimilazioaren aldekok* non kokatu zalantza sortzen zaigu, izan ere, *a priori*, *tolerantzia* mailari dagokionez ez dago oso argi non kokatu behar diren. Dena den, etorkin kolektibo ezberdineko agertzen dituzten jarrerak aztertu ostean¹⁰, eta non kokatzen diren ikusita, esan genezake immigrazioarekiko jarrera *intoleranteagoa* dutela *tolerantea* baino.

Horrela, bada, taldeen sailkapen dikotomikoa egiten badugu tolerantzia maila kontuan harturik (eta *asimilazioaren aldekoak* intoleranteak direla ulertuz), ondoko errealitatea izango dugu begien aurrean: % 51,4 immigrazioarekiko *intolerantea*, eta % 48,6 *tolerantea*. Badirudi *tolerantzia* homogeenagoa dela, taldeak handiagoak baitira; *intolerantzia*, aldiz, konplexuagoa da eta berezitasunak ditu. Taldeen deskribapenek intolerantzia mailak zehazten lagunduko digute, bai eta haien berezitasuna aztertzen ere.

Hala ere, agian hobe litzateke sailkapen dikotomikorik ez egitea, eta horren ordez hiru kategoria sortzea -taulak egiten duen moduan-, eta horren arabera, halakoa litzateke banaketa: Intoleranteak (% 31,7), Toleranteak (% 48,6) eta Asimilazioaren aldekok (% 19,7). Era horretan, esan genezake, EAEn immigrazioarekiko jarrera orokorrena tolerantzia dela (kultura-aniztasuna ardatz gisa duen ereduarekin, *zein immigranteen sarrerari muga zorrotzak ezartzen dizkion* asimilazioaren aldeko ereduarekin), biztanleriaren herenak immigrazioarekiko jarrera intoleranteak agertzen dituen artean.

Taldeen definizioak egin berri ditugun baieztapen horiek zehazteko eta edukiz janzteko aukera emango digu.

Lortu ditugun taldeen definizioek ondoko egitura izango dute gidari:

- 4.1. Ezkutuko faktoreekin duten harremanetik abiatuz taldeak definitzea
- 4.2. Aldagai soziodemografikoekin duten harremanetik abiatuz taldeak definitzea
- 4.3. Taldeen eta etorkin-kolektibo ezberdinen onarpen mailen artean sortu den harremana deskribatzea


4.1. Ezkutuko faktoreetatik abiatuz taldeak definitzea

Jarraian, immigrazioarekiko jarrerak agertzen dituzten faktoreen arabera definituko ditugu taldeak.

4. Taula. Tipologia eta Ezkutuko Faktoreak

Taldeak	Ezkutuko faktoreak (immigrazioarekiko jarrerak)				
	Gizarte-eskubideen bermea	Asimilazio-baldintzen garrantzia	Etorkina erantzule ez egitea	Immigrazioaren erakunde-gaitzespena	Kultura-aniztasunaren aldekoa
Intoleranteak	-1,5285596	,7793205	-1,0734897	2,0664148	-1,2247389
Intolerante epelak	-1,0631259	,6281002	-,6042089	,2825139	,0510754
Asimilazioaren aldekoak	,5231151	,7502336	-,2706026	-,3674421	-,5093607
Politikoki zuzenak diren intoleranteak	-,3293183	-,9223944	-,8388802	,0419164	-,3717836
Kultura-aniztasunaren aldeko tolerantak	,2279195	-,0443910	,2989531	,0507934	,9485422
<i>Eredurik gabeko</i> tolerante gogotsuak	,5613545	-,8876963	1,0950027	-,2844038	-,2985230

21. Diagrama. Tipologia eta Ezkutuko Faktoreak



Taulako eta grafikoko datuei begiratzuz, sei talde horiek immigrazioarekiko dituzten jarrera nagusiak honela laburbildu ditzakegu:

1. **Intoleranteak:** Biztanleriaren % 6,8 dira. Immigrazioaren erakunde-gaitzespena argia azaltzen dute eta etorkinen sarrerari mugak jartzen dizkiote. Halaber, etorkinak hainbat arazoren erruduntzat jotzen dituzte eta lortutako gizarte-eskubideak arriskuan jartzen dituztela uste dute. Ezaugarri nagusia: *Gaitzespena*.
2. **Intolerante epelek:** Galdetegiari erantzun dioten % 15,2 dira. Aurreko taldearen parekoa ez bada ere, talde honetan immigrazioarekiko gaitzespena ere nabari daiteke; halaber, talde horretakoek etorkina hainbat arazoren erantzuletzat hartzen dute eta gizarte-eskubideak arriskuan jartzen dituela uste dute. Dena den, "intolerante"en taldeak ez bezala, "intolerante epelek" kultura-aniztasuna ardatz nagusitzat duen integrazio-ereduaren aldeko jarrerak argiago agertzen dituzte, etorkinei asimilazio baldintza argiak eskatzen badizkiete ere. Ezaugarri nagusia: *Intolerantzia*.
3. **Asimilazioaren aldekoak:** Biztanleriaren % 19,7 dira. Immigrazioaren auzia pragmatismo mesfidatiaren ikuspuntutik aztertzen du talde horrek. Ez du immigrazioa errefusatzeko, eta ez du uste gizarte-eskubideak arriskuan jartzen dituztenik; baina hala ere, etorkina erantzuletzat jotzen du eta kontrol-neurri eta -baldintza garrantzitsuak ezartzen ditu. Asimilazioa ardatz nagusitzat duen integrazio-ereduaren defentsa argien agertzen duen taldea da, eta era berean, argi baztertzen du kultura-aniztasunaren eredia. Ezaugarri nagusia: *Pragmatismo mesfidatia*.
4. **Politikoki zuzenak diren intoleranteak:** Galdetegiari erantzun dioten % 9,7 dira, talderik txikiena. Ondoko arrazoi hauengatik eman diogu izen bitxi hori taldeari: Ez diote etorkinari erantzukizuna kentzen eta haren sarrerarako baldintzak ezartzen dituzte, beraz, nolabaiteko erakunde-gaitzespena nabari daiteke beraian. Hala ere, ez dituzte gizarte-lorpenak arriskuan ikusten eta ez dute kultura-aniztasunaren eredia guztiz baztertzen. Ezaugarri nagusia: *Hipokrisia*.
5. **Kultura-aniztasunaren aldeko tolerantetok:** Talderik handiena da eta biztanleriaren % 26,6 hartzen du. Kultura-aniztasuna ardatz gidarizat duen integrazio-ereduaren alde argi eta garbi egiten du, etorkinen erantzukizuna leuntzen du eta ez du uste gizarte-eskubideak arriskuan daudenik. Etorkinen sarrerarako ez du baldintzarik jartzen eta ez du erakunde-gaitzespenik agertzen. Ezaugarri nagusia: *Tolerantzia*.

6. **"Eredurik gabeko" tolerante gogotsuak:** Biztanleriaren % 22,1 dira. *A priori* immigrazioaren aldeko jarrera nabariena duen kolektiboa da. Etorkina ez dute erantzule egiten, ez dute uste gizarte-eskubideak arriskuan daudenik eta etorkinei ez dizkiete sarrera baldintzak ezarri nahi. Beraz, ez dute asimilazioaren aldeko eredia onartzen, hala ere, deigarria gertatzen da, kultura-aniztasunaren eredia ez dutela onartzen, horra hor "eredurik gabeko gogotsuak" izendatuak izateko arrazoia. Ezaugarri nagusia: *Irekitasuna eta integrazio-eredu eza.*

4.2. Tipologia eta aldagai soziodemografikoen arteko harremana

Taldeak aldagai soziodemografikoen arabera definitzean, honela arituko gara:

- Lehenik aldagaien arabera definituko ditugu taldeak.
- Bigarrenik, talde bakoitzaren soslai soziologikoen definizioa ematen saiatuko gara.

a) Aldagai soziodemografikoetatik abiatuta lortutako definizioa

Estatistika-adierazgarritasuna zutelako kontuan hartu izan diren aldagaiak hauek dira: adina, ikasketak-maila, erlijiozkotasuna, ideologia politikoa, boto politikoa eta abertzaletasuna.

1. Adina

Ondoko taula honek adin-tarte bakoitzak talde bakoitzean dituen portzentajeak aurkezten ditu.

5. Taula. Tipologia eta Adina

	18-29	30-44	45-64	>=65	Guztira
Intoleranteak	10,66	24,59	31,97	<u>32,79</u>	100
Intolerante epelak	22,14	25,46	<u>28,78</u>	23,62	100
Asimilazioaren aldekoak	10,51	21,02	33,81	<u>34,66</u>	100
Politikoki zuzenak diren intoleranteak	20,11	23,56	27,59	<u>28,74</u>	100
Kultura-aniztasunaren aldeko tolerantak	18,99	30,38	<u>30,80</u>	19,83	100
Eredurik gabeko tolerante gogotsuak	25,57	<u>35,44</u>	26,84	12,15	100
GUZTIRA	18,79	27,85	29,98	23,38	100
Adin-tarteetako ehuneko altuena.					
Adin-tarteetako ehuneko baxuena.					

Azpimarratu da talde bakoitzeko portzentaje altuena (irakurketa horizontala).

Konparaketarako eredia taulako azken lerroa da beti, horrek adin-tarte bakoitzak lagin osoan duen ehunekoa adierazten du. Khi-karratuaren test klasikoaren balioa 99,43 da (a.g.=15, $p<0,0001$).

Tipologia eta tipologiak adinarekin duen harremana deskribatzean ikus daiteke, biztanleriako gazteenak -18 eta 44 urte bitartekoak- immigrazioarekiko tolerantak direla, *eredurik gabeko* tolerantzia gogotsua izanik; bestalde, 45 urtetik gorakoaren artean asimilazioaren aldekoen taldea da nagusi. Deigarria gertatzen da, bi adin talde nagusien artean -"18-45 urte" eta "45 urte baino gehiago"- alde-

rantzizko joera nabaria dela; talde batek puntuazio baxuena ematen duen tokietan besteak altuenak ematen ditu eta alderantziz.

Adin taldeen barne-banaketaren azterketak (ehuneko bertikalak) jadanik aurkeztua dugun karakterizazio hori berresten du, izan ere, talde gazteenek jarrera toleranteenak hartzen dituzte, eta adinak gora egin ahala *asimilazioaren aldeko aukera*-k indarra hartzen du.

Datuak batera irakurriz gero, gazteak talde ezberdinetan banatuta daudela ikus dezakegu. Gazteek ez dute tipologiako talde jakin bat definitzen, taldeen soslai soziologikoari buruzko atalean ikusi ahal izango dugun bezala.

6. Taula. Tipologia eta Adina (ehuneko bertikalak)

	18-29	30-44	45-64	>=65	Guztira
Intoleranteak	4,42	6,99	8,16	10,54	7,67
Intolerante epelak	15,93	13,77	13,54	14,22	14,21
Asimilazioaren aldekoak	11,50	14,37	22,63	27,94	19,42
Politikoki zuzenak diren intoleranteak	9,73	7,78	7,79	11,52	9,01
Kultura-aniztasunaren aldeko tolerantak	26,25	27,54	26,16	21,81	25,57
Eredurik gabeko tolerantak gogotsuak	32,15	29,54	21,71	13,97	24,12
	100	100	100	100	100

2. Ikasketa-maila

Ondoko taula honek ikasketa-maila bakoitzak talde bakoitzean dituen portzentajeak aurkezten ditu.

7. Taula. Tipologia eta Ikasketa-maila (ehuneko horizontalak)

	Lehen Mailako ikasketak baino gutxiago	Lehen Mailako Ikasketak	Bigarren Mailako Ikasketak	Batzilergoa eta LH	Unibertsitate-ikasketak	Guztira
Intoleranteak	17,65	33,82	22,06	13,97	12,50	100
Intolerante epelak	13,44	24,90	23,72	20,16	17,79	100
Asimilazioaren aldekoak	10,95	22,48	23,05	18,73	24,78	100
Politikoki zuzenak diren intol.	9,32	27,33	27,33	18,01	18,01	100
Kultura-aniztasunaren aldeko tol.	8,53	14,00	15,10	24,51	37,86	100
Eredurik gabeko tol. gogotsuak	8,12	13,23	18,56	25,75	34,34	100
Guztira	10,36	19,72	20,34	21,68	27,90	100

Ikasketa-kategorietako ehuneko altuena

Ikasketa-kategorietako ehuneko baxuena

Azpimarratu da talde bakoitzeko portzentaje altuena (irakurketa horizontala).

Konparaketarako eredu taulako azken lerroa da beti, horrek ikasketa-maila bakoitzak lagin osoan duen ehunekoa adierazten du. Khi-karratuaren test klasikoaren balioa 128,42 da (a.g.=15, p<0,0001).

Taldeen osaeraren azterketa ikasketa-mailaren arabera egiten denean, jarrera intoleranteak ikasketak-maila baxuarekin lotura handiagoa dutela ikus dezakegu; artean, ikasketa-maila altuagoak dituztenek immigrazioarekiko jarrera tolerantetagoa dute. Gauza bera dio Europako Txostenak, horrek etorkizuneko hipotesi gisa zera dio: etorkizuneko gizarteetako ikasketa- eta prestakuntza-mailak altuagoak izateak etorkinekiko tolerantzia mailak areagotzea ekar dezake.

Kritikagarria den etorkizunerako baieztapen hori egia izanda ere, immigrazioaren aldeko eta harekin tolerantetarako diren jarrerak garatzeko lagungarriak izango diren integrazio-ereduak zein diren zehaztea argitzear dago. Izan ere, asimilazioaren aldeko ereduak (Bigarren Mailako Ikasketak dituztenengan egon badagoena) ez da immigrazioarekiko guztiz tolerantetara den ereduak. Eta *eredurik gabeko gogotsuak* izendatu ditugunak (horien artean batxilergoko eta LHko ikasleak ditugu) tolerantetarako dira, baina ez dute integrazio-eredu argirik. Integrazio-eredu batean oinarritutako jarrera tolerantetarako defendatzen dituztenak, Unibertsitate-ikasketak dituztenen biztanleria-sektorea da, eta *kultura-aniztasunaren aldeko tolerantetara* den taldea dugu.

Azkenik, ehuneko bertikalak jasotzen dituen taula aztertuko dugu. Bertan, ikasketa maila altuagoak tolerantzia gehiago dakarrela berretsi egiten da, baina datu bitxi bat ere ageri da: Lehen Mailako Ikasketak dituztenen ia % 21 *kultura-aniztasunaren aldeko tolerantetara* den taldean dago.

8. Taula. Tipologia eta Ikasketa-maila (ehuneko bertikalak)

	Lehen Mailako ikasketak baino gutxiago	Lehen Mailako Ikasketak	Bigarren Mailako Ikasketak	Batxilergoa eta LH	Unibertsitate-ikasketak	Guztira
Intoleranteak	12,90	13,11	8,26	4,91	3,41	7,62
Intolerante epelak	18,28	17,95	16,53	13,18	9,04	14,17
Asimilazioaren aldekoak	20,43	22,22	22,04	16,80	17,27	19,44
Politikoki zuzenak diren intoleranteak	8,60	12,25	12,12	7,49	5,82	9,02
Kultura-aniztasunaren aldeko tolerantetarako	20,97	18,23	19,01	28,94	34,74	25,60
Eredurik gabeko tolerantetara gogotsuak	18,82	16,24	22,04	28,68	29,72	24,15
	100	100	100	100	100	100

3. Erlijiozkotasuna

Ondoko taula honek erlijio-kategoria bakoitzak talde bakoitzean dituen portzentajeak aurkezten ditu.

Erlijiozkotasunaren arabera aztertutako taldeen osaerak agerian uzten du immigrazioarekiko jarrera tolerantetarako agnostikoengan edota erlijio-sineskerarik ez dutenengan (ateoengan) agertzen direla. Aitzitik, euren buruak katoliko gisa aurkezten dituztenek immigrazioarekiko jarrera uzkurragoak agertzen dituzte: katoliko elizkoien jarrera argi eta garbi intolerantea den artean, katoliko ez-elizkoiek asimilazioaren aldeko ereduak defendatzen dute.

9. Taula. Tipologia eta Erliziozkotasuna (ehuneko horizontalak)

	Katoliko elizkoia	Katoliko ez-elizkoia	Interesik gabea	Agnostikoa	Ateoa	Guztira
Intoleranteak	56,41	29,06	5,13	1,71	7,69	100
Intolerante epelak	41,85	34,81	11,85	5,93	5,56	100
Asimilazioaren aldekoak	46,72	37,32	7,12	4,56	4,27	100
Politikoki zuzenak diren intoleranteak	31,74	35,33	11,98	5,99	14,97	100
Kultura-aniztasunaren aldeko tolerantak	28,23	37,07	13,36	10,78	10,56	100
Eredurik gabeko tolerante gogotsuak	24,28	30,29	16,97	12,53	15,93	100
GUZTIRA	35,39	34,59	11,99	8,11	9,93	100
Erljio-kategorietako ehuneko altuena.						
Erljio-kategorietako ehuneko baxuena.						

Konparaketarako eredia taulako azken lerroa da beti, horrek erlijio-kategoria bakoitzak lagin osoan duen ehuneko adierazten du. **Khi-karratuaren** test klasikoaren balioa 138,75 da (a.g./l.g.=20, p<0,0001).

Hala ere, taldeen barne azterketak (ehuneko bertikalak) agerian uzten du biztanle katolikoen jarrera konplexuagoa dela: Elizkoiak direnak asimilazioaren aldekoen taldean kokatzeko joera dute, eta ez-elizkoiak asimilazioaren aldeko ereduaren eta kultura-aniztasunaren aldeko ereduaren artean banatzen dira. Dena den, argi eta konstante mantentzen dena erlijio sinesmen-ezaren eta immigrazioarekiko jarrera toleranteagoen arteko harremana da.

10. Taula. Tipologia eta Erliziozkotasuna (ehuneko bertikalak)

	Katoliko elizkoia	Katoliko ez-elizkoia	Interesik gabea	Agnostikoa	Ateoa	Guztira
Intoleranteak	11,98	6,10	4,15	1,42	4,71	7,53
Intolerante epelak	16,64	14,66	15,54	9,93	7,65	14,42
Asimilazioaren aldekoak	25,51	20,59	13,47	11,35	8,82	19,73
Politikoki zuzenak diren intoleranteak	8,86	8,40	9,33	6,38	12,35	8,89
Kultura-aniztasunaren aldeko tolerantak	19,75	28,50	27,98	34,04	27,06	25,54
Eredurik gabeko tolerante gogotsuak	17,26	21,75	29,53	36,88	39,41	23,89
	100	100	100	100	100	100


4. Ideologia Politikoa

11. Taula. Tipologia eta Ideologia Politikoa (batezbestekoak)

			% 95 batezbestekorako konfiantza-tartea	
			Batezbestekoa	
			Beheko muga	Goiko muga
Ideologia Politikoa	Intoleranteak	5,23	4,88	5,58
1etik 10erako eskala 1: Ezkerra 10: Eskuina	Intolerante epelak	4,57	4,39	4,76
	Asimilazioaren aldekoak	4,48	4,28	4,67
	Politikoki zuzenak diren intoleranteak	4,22	3,98	4,46
	Kultura-aniztasunaren aldeko tolerantak	4,02	3,87	4,17
	Eredurik gabeko tolerantak gogotsuak	3,72	3,55	3,88

Deigarria da "intoleranteak" continuumaren eskuineko muturrean kokatzen direla. Gainerako taldeetan continuumean gutxika beherantz doaz balioak ezker politikora hurbiltzen garen neurrian.

22. Diagrama. Tipologia eta Ideologia Politikoa (batezbestekoak)



5. Boto politikoa

Erkidegoko hauteskondeak bihar izango balira, zein alderdiri emango zenioke botoa? galderari eman zaizkion erantzunekin, galdetegiari erantzun dioten boto-asmoa jasotzen duen aldagaia osa dezakegu. Ezer ondorioztatu aurretik, azpimarratu behar dugu galderari erantzun ez diotenak % 36,2 izan direla. Beraz, jarraian azaltzen diren ondorioak kontu handiz hartu behar dira, izan ere, erantzun-

nen falta horrek emaitzetan nolabaiteko alborapena eragin lezake, baldin eta erantzun-eza aukera politiko jakin batzuekin lotuta balego (aukera horiek ez bailukete ordezkapen nahikoa izango azken emaitzetan).

12. Taula. Tipologia eta Boto-asmoa (ehuneko horizontalak)

	Aralar	IU/EB	EAJ	EA	PP	PSE	Batasuna	Beste bat	Boto zuria	Ez nuke bozkatuko	Guztira
Intoleranteak		1,28	5,17	1,43	30,00	4,88	3,31	6,67	2,50	3,26	5,18
Intolerante epelak	3,45	10,26	16,67	12,86	11,67	11,59	9,09	26,67	22,50	15,35	13,95
Asimilazioaren aldekoak	24,14	12,82	23,85	20,00	26,67	22,56	12,40		17,50	18,14	20,00
Politikoki zuzenak diren intoleranteak	6,90	5,13	11,21	7,14	1,67	8,54	10,74	6,67	5,00	11,16	9,21
Kultura-aniztasunaren aldeko tolerantak	37,93	26,92	27,01	37,14	23,33	32,32	23,14	13,33	25,00	29,77	28,33
Eredurik gabeko tolerantak gogotsuak	27,59	43,59	16,09	21,43	6,67	20,12	41,32	46,67	27,50	22,33	23,33
	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Aukera politikoetako ehuneko altuena.

Aukera politikoetako bigarren ehuneko altuena.

Zehaztapen hori egin ostean aurrera egin dezakegu. 12. eta 13. taulek aukera politiko bakoitzak sei taldeetako bakoitzean dituen portzentajeak (bai horizontalak eta bai bertikalak ere) aurkezten ditu. Lerroetako portzentajeak batzen direnean emaitza ez da kasu guztietan % 100, izan ere, portzentajea oso-oso baxuak zituzten zenbait aukera ez dira taulan agertzen.

13. Taula. Tipologia eta Boto-asmoa (ehuneko bertikalak)

	IU/EB	EAJ	EA	PP	PSE	Batasuna	Ez nuke bozkatuko	Guztira
Intoleranteak	1,85	31,48	1,85	27,78	11,11	9,26	11,11	100
Intolerante epelak	5,29	37,06	4,12	5,29	13,53	7,65	18,82	100
Asimilazioaren aldekoak	3,38	40,93	5,49	6,33	14,35	7,17	16,46	100
Politikoki zuzenak diren intoleranteak	3,48	37,39	4,35	0,87	12,17	13,04	23,48	100
Kultura-aniztasunaren aldeko tolerantak	7,74	29,46	8,04	3,87	16,07	8,33	19,35	100
Eredurik gabeko tolerantak gogotsuak	12,20	22,05	6,30	1,57	12,20	17,72	16,93	100
GUZTIRA	6,78	32,16	5,92	4,89	13,89	10,55	18,18	100

Aukera politikoetako ehuneko altuena.

Aukera politikoetako ehuneko baxuena.

Boto-asmoaren taula interpretatzean, gogoan izan beharko dugu taldeen barneko banaketa (ehuneko horizontalak), eta bai boto-asmoen barneko banaketa ere (ehuneko bertikalak).

Taldeen barneko osaera (ehuneko horizontalak)

Taldeen barneko osaeran, alderdi bakoitzari dagokion portzentaje altuena urdinez azpimarratu da eta laranja ehuneko baxuena. Bitxia gertatzen da zenbait bikote-eredu ia guztiz kontrakoak daudela egiaztatzea.

Adibidez:

- EAJ eta Batasuna: bataren minimoa bestearen maximoa da, eta alderantziz.
- Antzeko zerbait gertatzen da PP eta "Ez l/nuke bozkatuko" aukeren artean.
- PSEk eta EAK nolabaiteko antzekotasuna dute: haien maximoak eta minimoak talde berdinetan agertzen dira.

Boto-asmoaren baren-osaera (ehuneko bertikalak)

Alderdien barneko osaerari dagokionez, urdinez markatu egin dugu alderdi politiko bakoitzaren ehuneko handiena talde bakoitzean, eta berdez, bigarren handiena. Ondokoak azpimarratu behar ditugu hemen:

- Eskuin politikoa immigrazioarekiko jarrera intoleranteenak hartzen ditu.
- Zenbait alderdi -joera ideologiko ezberdinetakoak- era adierazgarrian kokatzen dira *asimilazioaren aldekoen* taldean: Aralar, EAJ, PP eta baita PSE ere.
- *Kultura-aniztasunaren aldeko tolerant*-en taldeak osaera ideologiko plurala du.
- Ezker politikoa (EB eta Batasuna) *eredurik gabeko gogotsu*-en taldean dago era nabarmenagotan; eta talde horretan dauzkagu ere "beste aukera politiko" bati botoa emango lioketenen gehiengoa.
- Bozkatzen ez dutenen eta boto zuria emango luketenei dagokienez, esan liteke immigrazioarekiko jarrera toleranteetatik hurbil daudela; baina horren toleranteak diren jarrerak ez dituzten pertsonak ere hartzen dituzte.

6. Abertzaletasuna

Taulako eta grafikoko datuak aztertuz, esan genezake abertzaletasunaren arabera hiru talde bereiz daitekeela.


- Batetik, *intolerante*-en taldea daukagu, espainiar abertzaletasunetik hurbilago dagoena.
- Bigarrenik, balio ertainak ematen dituzten hiru *intolerante* talde. Talde horretan, *intolerante epelak* eta *asimilazioaren aldekoak* abertzaletasunari dagokionean bat badatoz ere, *politikoki zuzenak* diren *intoleranteek* continuumean gorago kokatzeko joera dute, hau da, espainiar abertzaletasunaren postulatuetatik hurbilago.
- Azkenik, *toleranteak* euskal identitate abertzaletik hurbilago daude.

14. Taula. Tipologia eta Abertzaletasuna (batezbestekoak)

Abertzaletasuna	Batezbestekoa	% 95 batezbestekorako konfiantza-tartea	
		Beheko muga	Goiko muga
Intoleranteak	4,77	4,33	5,20
Intolerante epelak	4,16	3,89	4,43
Asimilazioaren aldekoak	4,15	3,93	4,37
Politikoki zuzenak diren intoleranteak	4,26	3,97	4,55
Kultura-aniztasunaren aldeko tolerantak	3,80	3,61	3,99
Eredurik gabeko tolerante gogotsuak	3,81	3,60	4,01

1etik 10erako eskala
1: Euskal abertzaletasuna
10: Espainiar abertzaletasuna

23. Diagrama. Tipologia eta Abertzaletasuna (batezbestekoak)



Sei taldetako sailkapena

b) Taldeen soslai soziologikoa


- Intoleranteak: 45 urtetik gorakoak, 65 urtetik gorakoak gehiago dira talde honetan. Lehen Mailako Ikasketak. Katoliko elizkoiak. Eskuin politikoa. Espainiar abertzaletasuna.
- Intolerante Epelak: Adin guztietakoak (adin-tarte bakoitzean % 20 inguru), hala ere, 45-64 urte arteko adin-tartea bereizi egiten da. Lehen eta bigarren mailako ikasketak (batez ere, lehen mailakoak). Zentro-eskuin politikoa. Era adierazgarrian nagusitzen den abertzaletasunik ez dago.

- Asimilazioaren aldekoak: 45 urtetik gorakoak. Unibertsitate-ikasketak dituzte (nahiz eta lehen eta bigarren mailako ikasketak dituztenen zati bat ere, hartzen duen). Zentro-eskuina. Era adierazgarrian nagusitzen den abertzaletasunik ez dago.
- Politikoki zuzenak diren intoleranteak: Adin guztietakoak dira, baina 45-64 urte arteko adin-tartea bereizi egiten da. Lehen eta bigarren mailako ikasketak. Continuum politikoan zentroan kokatzen dira, toleranteak baino eskuinerago, baina intoleranteak eta asimilazioaren aldekoak baino ezkerrerago. Espainiar abertzaletasunetik hurbilago. Zentro-ezker tradizionalagoa, espainiar abertzaletasunetik hurbil. Bigarren talde intoleranteena da, "intolerante" taldearen ostean.
- Kultura-aniztasunaren aldeko tolerantak: Helduak dira zentzu zabalean (30-64 urte bitartean). Unibertsitate-ikasketak. Ezker politikoa (zentrotik hurbil). Euskal abertzaletasuna.
- *Eredurik gabeko* tolerantak gogotsuak: Gazteagoak dira, 30-44 urte arteko adin-tartea nabarmendu egiten da. Unibertsitate-ikasketak. Agnostikoak eta sinesgabeak. Ezker politikoa. Euskal abertzaletasuna.

4.3. Gutxiengoaren onarpen-maila

Sortu ziren sei taldeekin *neurketa errepikatuen eredu bat* eraiki zen, oinarrian zera zuena: nazionalitate ezberdinetako etorkinen onarpen-maila hurbiltasunaren arabera. Beraz, ondokoak bereizi ziren: bizilaguna, lankidea, nagusia edo hurbileko pertsona batekin ezkontuta egotea⁶.

24. Diagrama. Zer nolako garrantzia du honako pertsonaren bat ... izatea




Hor lortutako emaitzek taldeen *trinkotasuna* sendotzen dute, izan ere, onarpen-mailak taldeen karakterizazioarekin bat datoz. Taldeen arteko bereizketa argia nabaritu daiteke eta soslaiak ez dira nazionalitate ezberdinen arabera nahasten. Era berean, sei taldeen arteko mailakatzeara sistematikoki errepikatzen da aztertutako harreman motetan.

Grafikoek agerian uzten dute sortutako taldeen koherentzia eta zenbait gutxiengorekiko tolerantzia maila aztertzeko aukera ere ematen digute sei taldeei dagokienez (horietan agertzen diren onarpen-mailak direnak direla).

Adibidez: *intoleranteak* ez dituzte gutxiengoak onartzen eta *gogotsuek* ez dute ia gaitzespenik agertzen, horrela, bi taldeoi dagokien tolerantzia eta intolerantzia mailak eredu bati jarraitzen dio: *gaitzespen gutxien jasaten dutenak Europar Batasuneko hiritarrak dira eta gutxien onartzen direnak marokoarrak dira*. Hala gertatzen da aztertutako sei taldeetan eta aztertutako kategorია guztietan (nagusia, lankidea, ezkondua eta bizilaguna).

Taldeen *hierarkia* bat egin dezakegu gizarte-eginkizun ezberdinak (nagusia, lankidea, bizilaguna edo suhia/erraina) betetzen dituzten etorkinekiko *tolerantzia eta gaitzespen mailen arabera*. Hierarkia hori egonkorra da kasu guztietan:



Zehaztasun handiagoko analisiak ondoko hauek ematen ditu ezagutzera:

- 1) Aztertu ditugun kasu gehienetan, Argentinako etorkinek gainerako herrialde latinoamerikarretatik (esaterako Kolonbia edo Ekuadorretik) datozen etorkinek baino gaitzespen maila baxuagoa izaten dute; hala ere, "intoleranteen" artean errazen onartzen direnak Europar Batasuneko eta AEBko etorkinak (ordena horretan) dira, eta hirugarren lekuan geratzen dira argentinarrak.
- 2) *Seme/alaba batekin ezkondu izana*-ren kasuan gaitzespen maila areagotu egiten da talde guztietan, batez ere *intolerante*-en artean, hurbiltasunaren ondorioz.

ONDORIOAK

Ikerlan honek lortu dituen ondorio nagusiak, bere helburu gidarieratik sortutakoak dira: immigrazioarekiko jarrerak taldekatuko dituzten ezkutuko faktoreak lortzea, eta immigrazioarekiko jarretatik abiatuta banakoen tipologia bat eratzea.

Esan bezala, bost faktoretan bildu daitezke immigrazioarekiko jarrera nagusiak, eta horietatik hiruk migrazio-fenomenoekiko jarrera positiboak islatzen dituzte eta bik jarrera negatiboak.

Laburpen gisa, faktore bakoitzaren definizioa eta haiei lotutako soslai soziologikoa aurkeztuko ditugu jarraian:

- **1. Faktorea. Gizarte-eskubideen bermea:** Faktore horrek immigrazioa fenomeno mehatxagarrri gisa sumatzen duen pertzepzioetik askotan eratorri ohi diren beldur eta ardurak ukatzen ditu. Faktore horren funtsezko ezaugarria zera da, lortutako lan eta gizarte-eskubideak ez daudela arriskuan, hau da, immigrazioak ez ditu mugatzen, baldintzatzen edota txartzen aurretik zeuden zerbitzuak (lana, etxebizitza, osasuna, hezkuntza, segurtasuna eta identitatea).
 - *1. Faktorearen soslai soziologikoa:* Beraz, immigrazioak aurretik lortutako gizarte-bermeak arriskuan jartzen ez dituela uste dutenen soslai soziologikoa ondokoa da: pertsona heldua, ikasketak dituen, ideologia politikoa ezkerrean kokatzen dena eta euskal abertzalea. Jarrera horretan eragin handiena duten aldagaiak ikasketa-maila eta adina dira.
- **2. Faktorea. Immigrazioari mugak jartzea (asimilazio-baldintzen garrantzia):** Atzeritarren sarrera baimentzeko garrantzitsutzat jotzen diren baldintzak biltzen dira faktore horretan. Faktoreak immigrazioaren murrizketa laburbiltzen du, izan ere, zenbait betekizun ezartzen du eta "onargarria" denaren definizioa zehazten du, azken hori kultura-asimilazioarekin eta irizpide ekonomikarekin oso loturik dagoelarik.
 - *2. Faktorearen soslai soziologikoa:* Etorkinaren asimilazioa bermatuko duten baldintzak betetzea garrantzitsuagotzat jotzen dutenek, eta beraz, etorkina onartu aurretik baldintzok bete behar dituela uste dutenek, ondoko ezaugarri hauek dituzte: urte gehiago dute, erlijiozkotasun nabariagoa dute, espainolak sentitzeko joera handiagoa dute eta eskuin ideologikotik hurbilago daude, betiere, ikasketa-maila dena delakoa. Erlijiozkotasuna eta ideologia politikoa aldagai adierazgarrienak dira asimilazio-jarrerak azaltzeko orduan.
- **3. Faktorea. Etorkina erantzule ez egitea:** Faktore horrek immigrazioaren pertzepzio positiboa islatzen du, izan ere, etorkinari egozten zaizkio hainbat erruren erantzukizuna ezeztatu egiten du, eta immigrazioarekin lotu ohi diren aurreiritzi eta etiketak ukatu egiten ditu (esate baterako, delitua, herritarren segurtasun gabezia, langabezia, galera ekonomikoa, gizarte gatazka eta abar).
 - *3. Faktorearen soslai soziologikoa:* Etorkinei kalte horien guztien erantzukizuna kentzeko joera handituko da, ikasketa-maila altuagoa den heinean, erlijioari garrantzi gutxiago ematen zaion neurrian eta ezker ideologikora hurbildu ahala. Adina eta abertzaletasuna ez dira adierazgarriak.
- **4. Faktorea. Immigrazioaren erakunde-gaitzespena:** Faktore hori 3. faktorearen antitesia da immigrazioaren pertzepzio negatiboa islatzen baitu. Faktore horri *erakunde-gaitzespena* izena eman diogu immigrazioaren gaitzespena adierazten duten jarrerez gain, Estatuak immigrazioari ematen dioten erakunde-erantzunak zalantzan jartzen dituzten jarrerak ere biltzen dituelako. Gainera faktore *ezkorra* da, immigrazioaren fenomenoan inolako abantailarik antzematen ez baitu.
 - *4. Faktorearen soslai soziologikoa:* Immigrazioak onurak dakartzala, erakunde-onurak batez ere, ukatzea areagotu egiten da ikasketa-maila baxuagoa den neurrian, banakoak

gazteagoak diren neurrian, oso altua da espainolak bakarrik sentitzen direnen artean eta banakoa eskuin ideologikora hurbildu ahala areagotu egiten da.

- **5. Faktorea. Kultura-aniztasunaren aldekoa:** 4. faktorea *ezkorra* dela esan badugu ere, azken faktore hau *baikorra* da. Horretan, argi eta garbi egiten da kultura-aniztasunetik abiatzen den integrazioaren alde, betiere, kultura-, hizkuntza-, identitate- eta erlijio-ezberdintasunak errespetatuz.
- *5. Faktorearen soslai soziologikoa:* Esan genezake banakoak kultura-aniztasunaren alde modu indartsuagoan egiten dutela ikasketa-mailak gora egin ahala, erlijiozkotasunak behe-
ra egin ahala (ateoen kasua salbuespena delarik, kultura-aniztasunaren kontzeptutik abia-
tuta azaldu dugun bezala), euskal abertzaletasuna sendoagoa den neurrian eta ezker ideo-
logikora hurbiltzen garen heinean.

Aurkeztu berriak ditugun faktoreen soslai soziologikoak landu ditugunean, bi aldagaik agertu dute adierazgarritasun estatistiko garrantzitsuena: ikasketa-mailak (horrek adinarekin duen harreman bitxia-
rekin batera) eta ideologia politikoa (eskuina *versus* ezkerra).

Ikasketa-maila aldagai garrantzitsua da immigrazioarekiko jarrerak aztertzen ditugunean, izan ere, orokorrean eta nagusiki, hezkuntza eta ikasketa-mailak altuagoak diren neurrian jarrera xenofobo eta arra-
zistak murriztu egiten dira.

Hala ere, gazte izateak, berez, ez dakar jarrera toleranteagoa; aldiz, kontrakoa esan genezake, gai-
nerako aldagaiaik konstante mantentzen ditugunean, gazteek helduek baino immigrazioaren kontrako
jarrera nabariagoa baitute.

Immigrazioarekiko jarrera ezberdinak azaltzeko aldagai adierazgarrienetako bat banakoek euren
buruak ezker-eskuin eskala ideologikoan kokatzen dituen aldagaia da; eta haren eraginaren esangura
argia da: Immigrazioarekiko jarrerak negatiboagoak dira continuum horren eskuineko muturrera hur-
biltzen garen neurrian. Jarrera positiboak aldiz, ideologia politikoa neurtzen duen continuumaren ezke-
rraldean biltzen dira.

Euskadiri dagokion ikerketa honek adierazten duenaren arabera, erantzunek gizarte-eskubideak
izendatu ditugun horien galeraren beldurra maila baxuagoan islatu badute ere, kultura-asimilazioaren
exijentzia egon badago, gehiengoari zabaltzerik ez badago ere.

Bigarren helburu nagusiari dagokionez (banakoek immigrazioarekiko agertzen dituzten jarreretatik
tipologia bat eratzeke helburua, alegia) sei tipo nagusi definitu dela gogorarazi behar dugu, eta talde
horietan migrazio-fenomenoarekiko tolerantzia/intolerantzia mailaren arabera mailaketa bat ezart-
zea posible izan dela.

Jarraian, lortutako mailaketaren arabera (intolerantzia altuenetik baxuenera) lortutako tipologia
osatzen dituzten tipoak laburki aurkeztuko ditugu, eta haien ezaugarri nagusiak eta soslai soziologikoa
(aldagai soziodemografikoekiko harremana) aipatuko ditugu.

- *Intoleranteak:* Biztanleriaren % 6,8 dira eta haien ezaugarri nagusia etorkinaren *gaitzespen*
argia da.
45 urtetik gorakoak dira gehienak eta 65 urtetik gorakoak gehiago dira talde honetan. Lehen
Mailako Ikasketak. Katoliko elizkoiak. Eskuin politikoa. Espainiar abertzaletasuna.
- *Politikoki zuzenak diren intoleranteak:* Galdetegiari erantzun dioten % 9,7 dira, talderik txi-
kiena. Horien ezaugarri nagusia *Hipokrisia* da, izan ere, etorkinari hainbat aurreiritziren
erantzukizuna kentzen badiote ere, etorkin kolektiboekiko jarrera intolerante garbia agertzen
dute.

Adin guztietakoak dira, baina 45-64 urte arteko adin-tartea bereizi egiten da. Lehen eta bigarren mailako ikasketak. Continuum politikoan zentroan kokatzen dira, toleranteak baino eskuinerrago, baina intoleranteak eta asimilazioaren aldekoak baino ezkerrerago. Espainiar abertzaletasunetik hurbilago daude. Zentro-ezker tradizionalagoa, espainiar abertzaletasunetik hurbil. Bigarren talde intoleranteena da, *intolerante*-en ostean.

- *Intolerante epelak*: Galdetegiari erantzun dioten % 15,2 dira. Haien ezaugarri nagusia *intolerantzia* da. *Intolerante*-en taldeak ez bezala, *intolerante epelek* kultura-aniztasuna ardatz nagusitzat duen integrazio ereduaren aldeko jarrerak argiago agertzen dituzte, etorkinei asimilazio baldintza argiak eskatzen badizkiete ere.
Adin guztietakoak (adin-tarte bakoitzean % 20 inguru), hala ere, 45-64 urte arteko adin-tartea bereizi egiten da. Lehen eta bigarren mailako ikasketak (batez ere, lehen mailakoak). Zentro-eskuin politikoa. Era adierazgarrian nagusitzen den abertzaletasunik ez dago.
- *Asimilazioaren aldekoak*: Biztanleriaren % 19,7 dira. Immigrazioaren auzia pragmatismo mesfidatiaren ikuspuntutik aztertzen du talde horrek.
45 urtetik gorakoak dira nagusi. Unibertsitate-ikasketak dituzte (nahiz eta lehen eta bigarren mailako ikasketak dituztenen zati bat ere, hartzen duen). Zentro-eskuina. Era adierazgarrian nagusitzen den abertzaletasunik ez dago.
- *Kultura-aniztasunaren aldeko toleranteak*: Talderik handiena da eta biztanleriaren % 26,6 hartzen du. Haien ezaugarri nagusia *tolerantzia* da.
Helduak dira zentzu zabalean (30-64 urte bitartean). Unibertsitate-ikasketak. Ezker politikoa (zentrotik hurbil). Euskal abertzaletasuna.
- *Eredurik gabeko tolerante gogotsuak*: Biztanleriaren % 22,1 dira. Migrazio-fenomenoa era positiboan onartzen badute ere, ez dute kultura-aniztasunaren alde argi eta garbi egiten etorkinak integratzeko ereduari dagokionez; horregatik haien ezaugarri nagusia *irekitasuna eta integrazio-eredu eza* da.
Gazteagoak dira, 30-44 urte arteko adin-tartea nabarmendu egiten da. Unibertsitate-ikasketak. Agnostikoak eta sinesgabeak. Ezker politikoa. Euskal abertzaletasuna.

Tipologiari dagokionez, esan beharrekoa da "eredu" bat agerian geratu dela etorkinen kolektibo ezberdinekiko jarreretan: gaitzespen gutxien jasaten dutenak Europar Batasuneko hiritarrak dira eta gutxien onartzen direnak marokarrak dira.

Laburbilduz, euskal gizartea bi talde nagusitan bana daiteke; bata toleranteagoa eta bestea intoleranteagoa. Tolerantziak ezaugarri homogeenagoak ditu. Intolerantzia hainbat faktoreren ondorioa da eta hainbat soslai edo ezaugarri soziologikok islatzen du; ez dugu ahaztu behar, immigrazioak desoreka ekonomikak eta gizarte-eskubideen galera dakarrelako ustearekin (askotan oinarririk gabea eta okerra den horrek) oso lotuta dagoela intolerantzia.

BIBLIOGRAFIA

- Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Europako Behatokia EUMC-SORA (2001). Actitudes hacia los grupos minoritarios en la Unión Europea. 2000ko Eurobarometroaren Inkestaren azterketa berezia.
- Immigrazioaren Euskal Behatokia - Ikuspegi (2004) *Percepciones, valores y actitudes de la población vasca ante la inmigración extranjera*.
<http://www.ikuspegi.org/cas/investigacion/investigacion/informePercepciones.pdf>
- Johnson, R.A. & Wichern, D.W. (1982): *Applied Multivariate Statistical Analysis*, Prentice-Hall, New Jersey.
- Mardia, K.V.; Kent, J.T. & Bibby, J.M. (1979): *Multivariate Analysis*, Academic Press, London.
- Morrison, D.F. (1976): *Multivariate Statistical Methods*, (2. arg). McGraw-Hill, London.

OHARRAK

¹ Paragrafo honetan galdera hauek aipatu dira:

6. galdera: “Pertsona atzerritar bat Estatuan/Espanian sartzen uzteko ala ez uzteko erabakian nola-ko garrantzia izan beharko luke:”

- hezkuntza-maila on bat izateak
- hemen bizi diren familiartekoak izatea
- gazteleraz hitz egiten duena izateak
- kristau-tradiziokoa izateak
- zuria izateak
- diru asko edo nahiko diru izateak
- gure herriko beharrekin bat datorren lanprestakuntza izateak
- sartaldeko ohiturak izateak
- gure bizimodua hartzeko prest egoteak

7. galdera: “Gizon-emakume atzerritarrez ari garenez, esadazu zein neurritan zauden ala ez zauden ados honetan:” (Gutziz ados; Ados; Ez adostasunean eta ez desadostasunean; Desadostasunean; Gutzizko desadostasunean; ED)

- Normalean, soldatak jaitsi egiten dira bizitzera eta lan egitera datozen pertsonak sartzearen ondorioz
- Gehienetan, bizitzera eta lanera datozen pertsonak iristean kaltetuagoak izaten dira behartsuak aberatsak baino
- Bizitzera eta lan egitera datozen pertsonak hemengo jendeaz bete ezin diren lanpostuak betetzen dituzte
- Lanera datozen atzerritarrek aldi batean lan-gabezia gelditzen badira, kanpora bidaliak izan beharko lukete
- Honera etorri den norbaitek edonolako delituren bat egiten badu, gure herritik bota beharko litzateke
- Normalean, etorkinak iristean, hiritarren segurtasunari negatiboki eragiten dio

15. galdera: “Kezkagarria al da zuretzat etorkinen presentziak zuregan edo zure familiarengan izan dezakeen eragin negatiboa gai hauetako batean?” (Oso; Nahiko; Gutxi; Ezer ez; Ez daki)

- Lana aurkitzeko edo lanari eusteko garaian
- Soldata txikiagoa izatea
- Etxebizitza aurkitzeko garaian
- Ospitaletan itxarote zerrendan
- Kalitate txikiagoko irakaskuntzan
- Kaleetako segurtasunik ezean
- Kultur identitatea galtzean
- Besteak

16. galdera: *“Esadazu zein mailakoa den zure adostasuna edo desadostasuna irakurriko dizkizudan baieztapenekin.”* (Gutziz ados; Ados; Ez adostasunean eta ez desadostasunean; Desadostasunean; Gutzizko desadostasunean; ED)

- Herrialde guztientzat onuragarri izango litzateke pertsonak batetik bestera libreki ibili ahal izatea
- Herrialde pobreetatik datozen pertsonak onartzeko erantzukizuna du
- Gizarte batean hobe da pertsona guztiak ohitu eta tradizio berdinak banatzea
- Gizarte batentzat hobe da mundu guztiak hizkuntza komun bat bederen hitz egitea
- Kultur talde desberdinek beren seme-alabak aparteko eskoletan hezteko ahalbidea izan beharko lukete, nahi izanez gero
- Herrialde batek arazoak saihestu nahi baditu, etorkinen kontuari amaiera eman beharko lieke

18. galdera: *“Esadazu zein mailakoa den zure adostasuna ala desadostasuna ondorengo baieztapenetan.”* (Gutziz ados; Ados; Ez adostasunean eta ez desadostasunean; Desadostasunean; Gutzizko desadostasunean; ED)

- Haur etorkin asko diren ikastetxeetan, irakaskuntzaren kalitatea gutxitu egiten da
- Etorkinak onura handiegia ateratzen diote gizarte-babes sistemari
- Agintariak gehiago saiatu beharko lirateke etorkinen bizi-baldintzak hobetzen
- Etorkinen erlijiozko jarduerak arriskuan jartzen dute gure bizimodua
- Etorkinek gero jasotzen dutena baino zerga handiagoak ordaintzen dituzte
- Etorkinei esker ekonomia hobeto ibiltzen da, bertako jendeak nahi ez dituen lanpostuak betetzen baitituzte
- Gizarte baterako ona da kultura, etnia eta erlijio desberdinez osatua egotea
- Gizarte batean guztiz onartuak izateko, etorkinek beren kultura eta ohiturak utzi egin beharko lituzkete
- Bi edo hiru belaunaldiren buruan, etorkinen ondorengoak herrialde hartzailearen antzekoa izango da
- Bada neurri bat gizarte batek bere baitan har ditzakeen erlijio, etnia edo arraza desberdinetako hainbeste jenderentzat
- Etorkinak guztiz onartuak izango badira gure erlijioarekin gatazkan sartzen diren erlijio edo kultura alderdiak utzi egin behar dituzte

² EUMC-SORA (2001: 12) Txostenean agertzen den "Gutxiengoak erantzule egin" faktoreak ez bezala.

³ Paragrafo honetan galdera hau aipatu da:

34. galdera: *“Esadazu zuk ikasketetan iritsi duzun mailarik garaiena zein den”*

- Bat ere ez (ez daki ez irakurtzen ez idazten)
- Lehen mailako ikasketak bukatu gabe (OHO 5. arte, lehen maila 5.)
- Lehen mailako ikasketak osorik (OHO, 6. edo 7. arte) (Lehen mailako 6. edo DBH 1. barne)
- Bigarren mailako ikasketak, lehen zikloa (OHO, 8. arte edo BBB 1. (barne), DBH 2. edo DBH 3. (barne), lehen-go batxilergoa
- Bigarren mailako ikasketak, bigarren zikloa (2. BBBra arte edo 3. BBBra arte) (4. DBH edo 1. LOGSE batxilergoa barne), 2. LH I edo 1. (barne), LH II (plan zaharra), 1. LH LOGSE, goi-mailako batxilergo zaharra, moduluak
- Batxilergoa eta LH: COU arte 2. LH, LOPSE (barne), 2. Batxilergoa (barne), 2. LH II (barne), (plan zaharra)
- Hirugarren mailako ikasketak, lehen zikloa.
- Hirugarren mailako ikasketak, bigarren zikloa.
- Hirugarren mailako ikasketak, hirugarren zikloa.
- ED/EDE

⁴ Paragrafo honetan galdera hauek aipatu dira:

43a. galdera: *“Erlijio kontutan, zu nola definituko zinateke?”*

- Katolikoa
- Beste erlijio bat
- Agnostikoa
- Ateoa

- Berdin zait
- Ez daki/ Ez du erantzun

43b. galdera: *"Nola definitzen zara? (Oinarria "Katolikoa" + "Beste erlijioak" P43A-n)"*

- Praktikantea
- Ez praktikantea

⁵ Paragrafo honetan galdera hauek aipatu dira:

40. galdera: *"Gai politikoez hitz egitean, (...) sarritan hitz egiten da espainolismoaz eta euskal nazionalismoaz, (...) non kokatuko zenuke zure burua 1=muturreko nazionalismoa 10=muturreko espainolismoa eskalan?"*

- Muturreko nazionalismoa (1)
- 2
- 3
- 4
- 5
- 6
- 7
- 8
- 9
- Muturreko espainolismoa (10) 0,7
- ED 1,9
- EDE

41. galdera: *"Ondorengo esaldiotan, zeinek adierazten ditu ondoen zure sentimenduak?"*

- Espainiarra sentitzen naiz soil-soilik
- Euskaldun baino gehiago sentitzen naiz espainiar
- Euskalduna bezain espainiar sentitzen naiz
- Espainiar baino gehiago sentitzen naiz euskaldun
- Euskalduna sentitzen naiz soil-soilik
- ED

⁶ Paragrafo honetan galdera hau aipatu da:

39. galdera: Politikaz hitz egiten denean, normalean ezkerra eta eskuina esapideak erabiltzen dira. (...) ezker muturretik (1) eskuin muturrera (10) doazenak. (Non) kokatuko zinateke zu?

- Ezker muturrean (1)
- 2
- 3
- 4
- 5
- 6
- 7
- 8
- 9
- Eskuin muturrean (10)
- ED
- EDE

⁷ Irudi bakoitzak F balio estatistikoaz gain (batezbestekoak benetan ezberdinak diren ondorioztatzea ahalbidetzen diguna), a errearen probabilitatea dakar. F balioa zenbat eta altuagoa, orduan eta baxuagoa izango da a errearena, eta beraz, batezbestekoetako baten bat ezberdina

delako segurtasuna handiagoa. Hortaz, darabilgun ezaugarri horrek faktoreak ordezkatzeko duen azpi-ko jarrera horrengan benetako eragina du.

⁸ Europar Txostenean (EUMC-SORA, 2001:20) honela definitzen dira lortutako taldeak: "tolerante aktiboak", "tolerante pasiboak", "intoleranteak" eta "anbibalenteak".

⁹ Espainiako kasuari dagokionez, Europar Txostenak egindako zenbait aipu jasoko dugu hemen: "Italia, Espainia eta Portugal antzekoak dira. Banako intolerante gutxi dago, eta hala ere, tolerantetik pasiboen portzentajeak altuak dira eta tolerantetik aktiboen portzentajeak baxuak. Irlanda ere, talde honetan sar liteke, nahiz eta hango kasuan banako intoleranteen ehunekoa ez den EB-ko batezbestekoa baino baxuagoa (era adierazgarrian). Espainiako kasuan % 61 dira "tolerante pasiboak" (EUMC-SORA, 2001:21)

¹⁰ Hala ikus daiteke txosten honen 4.3. *Gutxiengoaren onarpen-mailari* dagokion atalean.

¹¹ Galdetegian honela egin zen galdera: *"Bizitzera hona etorri diren pertsonak gogoan esanda, esaidazu 0tik 10erako eskala batean, zein garrantzi izango luke zuretzat etorkin horietako bat zure bizitzan ondoren aipatzen diren tokietako bat beteko balu"*:

- Zure bizilaguna,
- Zure lankidea,
- Zure nagusia,
- Zure seme-alabaren batekin ezkonduko balitz.

0 "niretzat ez luke garrantzirik izango" eta 10 "oso garrantzi handia izango luke".

LABURPEN TAULA: BANAKOEN TIPOLOGIA IMMIGRAZIOAREKIKO DITUZTEN JARREREN ARABERA

Tipologia	Immigrazioarekiko jarrera nagusia	Immigrazioarekiko jarrerak	Sosai soziologikoa	Ehunekoak
Intoleranteak	Gaitzespena	Immigrazioaren erakunde-gaitzespena Etorkinen sarrerari mugak. Etorkina erantzule egiten du. Immigrazioak lortutako gizarte-eskubideak arriskuan jartzen dituztela uste dute.	45 urtetik gorakoak, 65 urtetik gorakoak gehiago dira talde hone-tan. Lehen Mailako Ikasketak. Katoliko elizkoiak. Eskuin politikoa. Espainiar abertzaletasuna	6,8
Intolerante epelak	Intolerantzia	Ez du immigrazioa onartzen. Etorkina erantzule egiten du. Gizarte-eskubideak arriskuan. Kultura-aniztasuna ardatz nagusizat duen integrazio ereduaren aldeko jarrerak argiago agertzen dituzte, etorkinei sartzeko asimilazio baldintza argiak eskatzen badizkiete ere.	Adin guztietakoak (adin-tarte bakoitzean % 20 inguru), hala ere, 45-64 urte arteko adin-tartea bereizi egiten da. Lehen eta bigarren mailako ikasketak (batez ere, lehen mailakoak). Zentro-eskuin politikoa. Era adierazgarrian nagusitzen den abertzaletasunik ez dago.	15,2
Politikoki zuzenak diren intoleranteak	Hipokrisia	Erakunde-gaitzespena Etorkina erantzule egiten dute. Etorkinen sarrerari baldintzak ezartzen dizkiete. Gizarte-eskubideak galduko direlako beldur handirik ez dute agertzen. Ez dute kultura-aniztasunaren eredia guztiz ukatzen.	Adin guztietakoak dira, baina 45-64 urte arteko adin-tartea bereizi egiten da. Lehen eta bigarren mailako ikasketak. Zentro-ekzker tradizionalagoa, espainiar abertzaletasunetik hurbil. Bigarren talde intoleranteena da, "tolerante"-en ostean.	9,7
Asimilazioaren aldekoak	Pragmatismo mesfidatia	Ez du immigrazioa ukatzen. Gizarte-eskubideak ez daude arriskuan. Etorkina erantzule egiten du. Kontrol-baldintza eta -neurri garrantzitsuak jartzen ditu. Kultura-aniztasunaren eredia ukatzen du.	45 urtetik gorakoak. Unibertsitate-ikasketak dituzte (nahiz eta lehen eta bigarren mailako ikasketak dituztenen zati bat ere, hartzen duen). Zentro-eskuina. Era adierazgarrian nagusitzen den abertzaletasunik ez dago.	19,7
Kultura aniztasunaren aldeko tolerantak	Tolerantzia	Kultura-aniztasunaren integrazio-ereduaren alde egiten du argi eta garbi. Etorkinari erantzukizuna kentzen dio. Gizarte-eskubideak ez daude arriskuan. Etorkinen sarrera mugatzeko baldintzarik ez dute ezartzen. Erakunde-gaitzespenik ez.	Helduak dira zentzu zabalean (30-64 urte bitartean). Unibertsitate-ikasketak. Ezker politikoa (zentrotik hurbil). Euskal abertzaletasuna	26,6
Eredurik gabeko tolerantak gogotsuak	Irekitasuna eta integrazio eredu eza	Etorkinei erantzukizuna maila nabarienean kentzen diete. Gizarte-eskubideak ez daude arriskuan. Etorkinen sarrera mugatzeko baldintzarik ez dute ezartzen. Ez dute kultura-aniztasunaren ereduari eusten.	Gazteagoak dira, 30-44 urte arteko adin-tartea nabarmendu egiten da. Unibertsitate-ikasketak. Agnostikoak eta sinesgabeak. Ezker politikoa. Euskal abertzaletasuna	22,0

TAULEN ERANSKINA

1. ERANSKINA: ALDAGAIEN ETA EZKUTUKO FAKTOREEN ARTEKO HARREMANA

	Osagaia				
	1	2	3	4	5
Desadost.eragin negat_ Lana mantentzeko eta topatzeko aukerak.	0,89	0,00	-0,11	0,08	0,06
Desadost.eragin negat_ Soldatak txikiagoak dira	0,88	0,04	-0,04	0,05	0,03
Desadost.eragin negat_ Etxebizitza aurkitu	0,88	-0,04	-0,10	0,08	-0,02
Desadost.eragin negat_ Ospitaletako itxaro-zerrendak	0,74	-0,02	0,10	0,00	-0,03
Desadost.eragin negat_ Kalitate gutxiagoko hezkuntza	0,72	-0,01	0,00	-0,07	0,05
Desadost.eragin negat_ Hiritarren segurtasuna	0,63	-0,10	0,23	-0,02	-0,11
Desadost.eragin negat_ Identitate kulturalaren galera	0,61	-0,01	0,10	-0,10	0,01
Garr_Gazteleraz hitz egiten jakitea	-0,09	0,80	0,15	0,02	0,00
Garr_Heziketa-maila ona izatea	-0,05	0,78	0,09	-0,01	0,11
Garr_Gure herriaren beharretara moldatuko den lan-prestakuntza izatea	-0,03	0,77	-0,06	0,04	0,20
Garr_Hemen bizi diren senideak izatea	-0,02	0,75	0,16	-0,06	0,05
Garr_Kristaua izatea	0,02	0,67	-0,04	-0,03	-0,33
Garr_Diru nahiko edo asko izatea	0,02	0,62	-0,11	0,01	-0,26
Garr_Gure bizimodua bereganatzeko prest egotea	0,01	0,61	-0,16	0,07	0,17
Garr_Zuria izatea	0,05	0,57	-0,13	-0,01	-0,42
Garr_Mendebaldeko ohiturak izatea	-0,05	0,56	-0,23	0,03	-0,18
Desadost_Hona etorri den norbaitek edozein delitu egiten badu, herrialdetik kanporatu beharko litzateke	-0,02	-0,06	0,74	0,03	-0,09
Desadost_Orokorrean etorkinen etorrerak kalte egiten dio hiritarren segurtasunari.	0,18	-0,08	0,64	-0,02	-0,03
Desadost_Pobreei kalte handiago egiten die	0,04	-0,03	0,57	0,34	-0,02
Desadost_Gure artean bizitzera eta lan egitera datozen pertsonen etorrerak soldaten jaitsiera dakar	0,22	0,07	0,53	-0,02	0,02
Desadost_Langabezian geratzen badira, kanporatuak izan beharko lukete	0,06	-0,01	0,51	-0,20	0,10
Desadost_Etorkinek onura gehiegi ateratzen dute gizarte-babes sistematik.	0,13	-0,05	0,42	-0,37	-0,12
Desadost_Etorkinak guztiz onartuak izan daitezzen, haien erlijio eta kulturaren parteak baztertu behar dituzte gure legediarekin bat ez datozen neurrian.	0,01	-0,09	0,41	-0,14	0,03
Desadost_Herrialde batek arazoak ekidin nahi baditu, immigrazioarekin amaitu behar du.	0,13	-0,03	0,41	-0,22	0,28
Desadost_Ume etorkin asko dagoen eskoletan hezkuntzaren kalitateak behera egiten du.	0,15	0,02	0,35	-0,33	0,01
Desadost_Gizarte batek onar ditzakeen erlijio, etnia eta arraza ezberdineko pertsona-kopuru mugatu bat existitzen da.	0,05	-0,12	0,34	-0,22	0,20

	Osagaia				
	1	2	3	4	5
Desadost_Etorkinek ekonomia hobetzeko aukera ematen dute, izan ere, bertako biztanleek nahi ez dituzten lanpostuak hartzen dituzte.	-0,14	-0,01	0,11	0,62	-0,11
Desadost_Herrialde aberatsen betebeharra da herrialde txiroetatik datozen pertsonak hartzea	-0,14	0,14	0,04	0,61	0,25
Desadost_Gizartearentzat onuragarria gertatzen da kultura, etnia eta erlijio ezberdinetako pertsonen osatua egotea	0,03	0,06	-0,14	0,58	-0,25
Desadost_Autoritateek etorkinen bizi-baldintzak hobetzeko ahalegin handiagoa egin beharko lukete.	0,08	0,10	-0,08	0,56	0,05
Desadost_Etorkinek hemen betetzen ez diren lanpostuak betetzeko aukera ematen dute.	-0,09	0,04	0,35	0,54	-0,32
Desadost_Herrialde guztiei mesede egingo lieke pertsona guztiak herrialde batetik bestera joan eta etortzeko askatasunak	-0,14	0,14	-0,14	0,54	0,29
Desadost_Bi edo hiru belaunalditan, etorkinen ondorengoak bertako biztanleak bezalakoak izango dira.	-0,01	-0,13	0,00	0,48	0,04
Desadost_Etorkinen erlijio-ohiturek arriskuan jartzen dute gure bizimodua.	0,16	-0,01	0,30	-0,30	0,14
Desadost_Gizartearentzat hobe da pertsona guztiak ohitura eta tradizio berdinak izatea.	0,15	-0,03	0,16	-0,05	0,56
Desadost_Kultura-talde ezberdinek haien seme-alabak eskola bereizietan hezteko aukera izan beharko lukete, hala nahi badute.	0,05	0,01	-0,19	0,02	0,50
Desadost_Gizartean guztiz onartuak izan daitezten, etorkinek haien kultura eta ohiturak alde batera utzi behar dituzte.	0,09	0,01	0,33	-0,29	0,42
Desadost_Gizartearentzat komenigarria da biztanle guztiak gutxienez hizkuntza komun bat izatea.	-0,01	-0,07	0,31	0,14	0,40

2. ERANSKINA: BARIANTZA-ANALISIA

1. FAKTOREA. GIZARTE-ESKUBIDEEN BERMEA

Subjektuen arteko efektuen probak

Iturria	III motako berreturen batura	ag	Batez besteko koadratikoa	F	Adierazgarritasuna
Zuzendutako eredua	137,132(a)	16	8,571	9,315	,000
Ebakidura	7,709	1	7,709	8,378	,004
adin-taldeak	24,638	3	8,213	8,926	,000
ikasketak	31,978	4	7,994	8,689	,000
eusk_abertzalet	20,184	4	5,046	5,484	,000
Erljio_jarrera	5,041	4	1,260	1,370	,242
Ezk_esk	18,124	1	18,124	19,698	,000
Errorea	1453,708	1580	,920		
Guztira	1591,860	1597			
Zuzendua Guztira	1590,840	1596			

Mendeko aldagaia: Gizarte-eskubideen bermea
a R-karratua = ,086 (R-karratu zuzendua = ,077)

2. FAKTOREA. ASIMILAZIO-BALDINTZEN GARRANTZIA**Subjektuen arteko efektuen probak**

Iturria	III motako berreturen batura	ag	Batez besteko koadratikoa	F	Adierazgarritasuna
Zuzendutako eredua	186,788(a)	16	11,674	12,820	,000
Ebakidura	17,588	1	17,588	19,315	,000
adin-taldeak	7,983	3	2,661	2,922	,033
ikasketak	1,809	4	,452	,497	,738
eusk_abertzalet	12,705	4	3,176	3,488	,008
Erljio_jarrera	52,695	4	13,174	14,467	,000
Ezk_esk	17,898	1	17,898	19,655	,000
Errorea	1438,745	1580	,911		
Guztira	1625,542	1597			
Zuzendua Guztira	1625,533	1596			

Mendeko aldagaia: Asimilazio-baldintzen garrantzia
a R-karratua = ,115 (R-karratu zuzendua = ,106)

3. FAKTOREA. ETORKINA ERANTZULE EZ EGITEA**Subjektuen arteko efektuen probak**

Iturria	III motako berreturen batura	ag	Batez besteko koadratikoa	F	Adierazgarritasuna
Zuzendutako eredua	211,414(a)	16	13,213	14,130	,000
Ebakidura	20,585	1	20,585	22,012	,000
adin-taldeak	1,047	3	,349	,373	,772
ikasketak	52,679	4	13,170	14,083	,000
eusk_abertzalet	8,682	4	2,170	2,321	,055
Erljio_jarrera	20,683	4	5,171	5,529	,000
Ezk_esk	29,014	1	29,014	31,026	,000
Errorea	1477,526	1580	,935		
Guztira	1688,940	1597			
Zuzendua Guztira	1688,940	1596			

Mendeko aldagaia: Etorkina erantzule ez egitea
a R-karratua = ,125 (R-karratu zuzendua = ,116)

4. FAKTOREA. IMMIGRAZIOAREN ERAKUNDE-GAITZESPENA

Subjektuen arteko efektuen probak

Iturria	III motako berreturen batura	ag	Batez besteko koadratikoa	F	Adierazgarritasuna
Zuzendutako eredua	164,687(a)	16	10,293	10,342	,000
Ebakidura	10,229	1	10,229	10,278	,001
adin-taldeak	12,408	3	4,136	4,156	,006
ikasketak	23,836	4	5,959	5,987	,000
eusk_abertzalet	67,440	4	16,860	16,941	,000
erlijio_jarrera	5,205	4	1,301	1,307	,265
Ezk_esk	28,227	1	28,227	28,362	,000
Errorea	1572,479	1580	,995		
Guztira	1737,166	1597			
Zuzendua Guztira	1737,166	1596			

Mendeko aldagaia: Immigrazioaren erakunde-gaitzespena
a R-karratua = ,095 (R-karratu zuzendua = ,086)

5. FAKTOREA. KULTURA-ANIZTASUNAREN ALDEKOA

Subjektuen arteko efektuen probak

Iturria	III motako berreturen batura	ag	Batez besteko koadratikoa	F	Adierazgarritasuna
Zuzendutako eredua	162,215(a)	16	10,138	11,544	,000
Ebakidura	,535	1	,535	,609	,435
adin-taldeak	4,825	3	1,608	1,831	,139
Ikasketak	71,011	4	17,753	20,215	,000
eusk_abertzalet	8,632	4	2,158	2,457	,044
Erljio_jarrera	18,414	4	4,604	5,242	,000
Ezk_esk	4,779	1	4,779	5,442	,020
Errorea	1387,569	1580	,878		
Guztira	1550,026	1597			
Zuzendua Guztira	1549,784	1596			

Mendeko aldagaia: Kultura-aniztasunaren aldekoa
a R-karratua = ,105 (R-karratu zuzendua = ,096)

